

# Jainkoarekikoaz Estetika yarduna

GAIZKA BARANDIARAN

Ludwig Wittgenstein izanen da yardunaldi ontarako elapide. Betitasunaz  
Lari da Wittgenstein neopositibista, «Viena'ko» deritzan «Lagunartekoa»,  
eta onela jalkitzen du bere silojismoa:

«Wenn man unter Ewigkeit nicht unendliche Zeitdauer, sondern Unzeitlich-  
keit versteht, dann lebt der ewig, der in der Gegenwart Lebt (Ludwig  
Wittgenstein: «Tractatus Logico-Philosophicus» (6.4311) Madrid 1973).

«Si por eternidad no se entiende una duración temporal infinita, sino  
intemporalidad, entonces el que vive en el presente vive eternamente».

«Azkenbako aldi irautea baldin ez ba'da asmatzen betitasuna, zera baizik,  
Aldigabetasuna, orduan Orainean bizi dana betierean bizi da».

Iker dezagun aburua ta aburuondoa. Betitasuna, diñosku lenbizi, a) «az-  
kenbako aldi irautea ez ba'da» ta

b) «Aldigabetasuna baldin ba'da», «Orduan», diño Sailen Lojikak oi duen  
bezela,

c) «Orainean bizi dana, Betitasunean bizi da»

Wittgenstein'ek berak ontzat eta legezkozat ematen duelakoan, beraz,

a) Azkenbako aldien irauketa EZ dala betitasuna. Ez dalakoan ari da.

Oréla izatera, ba, *aldi* irauketa ez da, Aldiek *azkenik* ez duten arén. Aldiz  
aldiko irautea ez da, bañan azkenengo Aldirik ere ez da. Ta «Aldigabetasuna»  
(Unzeitlichkeit, Intemporalidad) dala onartzen du. Azter dezagun zeazkiago,  
ba, Wittgenstein'en gogabidea ta Lojikabidea.

Aldiaren irautea ez da berez eta berariz betitasunari dagokana. Iraute luzea,  
aldiz aldi azkenik gabe irauten duen aldia ez da berez, ez berariz, betierekoa  
edo betiraundekoa edo betikoa. Aldia, betiko érezkadan aldiz aldi gei diteke-  
na, aldi azkengabea da, bañan ez da betierekoa, ez betitasuna. Alako irautea  
armenez (potencia pasiva) beste aldi baten geigafia da, auferko aldiari beste aldi  
bat gei dakiokena da, baña beñola ere ez da osobatean (actu) azkengabea.  
Zatika da azkengabea, geigafiz geigafi da beti «azkena» gei ez dakiokena. Baña  
batbatetan osotasunik ez du aldiak, aldia igazkoña da-eta. Azkengabea da,  
noski, aldi érezkada, armenez beste aldi bat geyago gei dakiokena da. Bakoit-  
zeko «Orain-mugatu-bat» da bere artan, bañan ez da «Orain-oso-bat». «Ge-  
genwart, Presente, Oraina», ba, besterik gabe, «temporal», Orain-aldia da.  
Orain-aldia eten-aldia da, eten-aldien azkenbako érezkada da (zeitliche) Ge-

genwart, Presente (temporal), Orain-aldia». Bakoitzeko bere artan Orain-mugatu-bat izan afen, ez da yardutez (actu) Azkenbako-Orain-bat. Aldia esatean, edozer gauzaki dan-dan bitartean érezkada aldia da, igazkoña dalako aldia. Bat, bi, iru... zenbatu baldin ba'diteke, igazi doalako da, igitzen dalako da. Beraz, gauzaki ori, atetik begira gatzazkiolarik, igaztaldiz igaztaldi zenbatzen degu, igitaldiz igitaldi neurtzen degu.

Bitarikoa da izatea: beretarik doan izatea, ta bestetarik doan izatea. Edota berezkoa dan izatea, ta bestezkoa dan izatea.

Beretarik doan izatea betierean da. Berez dan izatea betitasunean da alakotxa ta ainbatekoa. Zerguna (esencia) da izatearen iturburu, ta beingoz baldin ba'da, betikoz da alaxe. Aldirik ez du, ez asierarik, ez azkenik. Orain-bat-bakara da, asierabako Orain-bat bakara da, azkenbako Orain-bat-bakara da. Irautaldirik ez du, iraute utsa da. Atetik gu-geu begira galararik, gogamenez asmatzen dizkiogu irautaldiak.

Bestetarik doan izatea, ordea, aldiz aldikoa da. Beste dan izatea izate-aldiz izate-aldi da. Bere zerguna ez da izatearen iturburu, ta beingoz gertatzen ba'da izate, beti gertatzen da aldiz aldi. Bere izatea aldiaren irautea da, aldiz aldi irauten du, aldi érezkada da, aldi piloa besterik ez da. Orain aipatu-ala, ez-izateko gai da. Orain gertatu-ala, urango Orain-aldian ez-gertatzeko gai da. Izatearen gorabeera da, gorako aldiari berealako beera aldia dagokalako. Izatearen ageraldia ezkutaldia dañaka. Izatearen aroaldia utsaldia. Irautea berez eta berariz aldia aldiari geitutakoa da. Gu-geu begira galararik, edo ez galararik, berez aldiz aldiko irautea da. Asiera-aldia duen bezela, azken-aldia du, ta azkeneko azkenean azkena du, azkena ezereza da-eta.

Bestetarik doan izatearen oiñaria aztertzen ba'degu, sorkaria (creatura) berez ayerge (indeferente) da izateko ta beti da, izan ere, alaxe. Izateko, beriz, ayerge izatea, utsa izatea da berez izateko. Izate-aldia bera uts-aldia da bereala, bigaeren izate-aldian izateko bigaeren ekit-aldia bear du, bestela ezerezean erortzen da-eta. Lenengo aldiari izateko utsa dan bezelaxe, bigaerenean ere berebateko utsa da. Jainkoa berez eta berariz izate utsa dan bezelaxe, bigaerenean ere berebateko izate utsa da. Jainkoa berez eta berariz izate utsa dan bezelaxe, sorkariaren izatea berez eta berariz utsa da.

Wittgenstein'ek onela diño:

c) «der in Gegenwart lebt»; «quien vive en el Presente»  
«Orainean bizi dana».

Zer da «Gegenwart, Presente, Orain» ori?, galde diteke. «Orain» ori orain-aldiz orain-aldi zenbatzen dana izan diteke, ta beraz, «azkenbako Orain-aldien irautea». «Orain» ori orain-aldiz orain-aldi neur diteke, «Orain» bakoitzeko neurtzen dan aldi kopurua izan diteke, ta beraz, «aldiketa, aldien érezkada, aldien azkengabea, baiña bakoitzeko zenbat-ainbatako kopurua» da.

Ta bigaerenez, *Orain* «aldigabeko Oraina» izan diteke. Wittgenstein'ek, lenbizi auñesakunean «Unzeitlichkeit, Intemporalidad, Aldigabetasuna» aipatu ondoren, gero aterakizunean edo atzenean «der in der Gegenwart lebt», «quien vive en el Presente», edo «Orainean bizi dana» aipatzen du. Zuzen aal dago Lojikabidean? Edo ez omen litzake onela lojikazko atzena?

«der in der (unzeitlichen) Gegenwart lebt», «quien vive en el presente (intemporal), ots (Aldigabeko) Orainean bizi dana». Beraz, ez da biziko betitasunean «Orain-aldian bizi dana», beste alakoa baizen: «Aldigabeko

Oraínean bizi dana». Betitasuna, «Ewigkeit», ba, «Aldigabetasuna» «Unzeitlichkeit» baldin ba'da, «aldigabeko Oraínean» bizi bear da ta ez Oraín-aldian. Aldi irautea azkengabea ba'ledi ere ez da betitasuna. Beraz, ez da biziko betitasunean «Oraín-aldian bizi dana», beste alakoa baizen: «Aldigabeko Oraínean bizi dana». Orezkeroz, azter dezagun Jainkoarekikoa.

Jainkoa Bere zergunez (esencia) da izate. Bere zerguna berez eta berariz da izate, beti da izate ta betitasuna da. Beti izan eta Orain izan, berdin zayo, aldirik ez duen ezker, aldigabeko Oraínean da-eta. Ez du Oraín-aldirik, igaztaldirik eta etořaldirik ez duen bezelaxe. «Orain» soila ta utsa da.

Sorkaria, materiazko gauzaki izan, gizanima izan, oraínaldiz oraínaldi da, aldizkoa bai da berez eta berariz. Materiazko sorkariak berez eta berariz jauskořa, ustelkořa, aldi bakoitzez gertakizuna dan ezker, azkena du ta azkena ezereza da. Gizanima, bakuna (simple) ta atsezko izakaria danez, beingoz daneko, betikoa da bere zergunez. Alabaiñan, izateko sorkuaren (causa efficiens) beařa izan duen ezker, beti da ayerge (indiferente) izateko, ta sorkuak bertan beera utzi ba'leza asierako ezerezean murgilduko litzake. Jainkoak irazan du ezerezetik, beste materiazko gauzakiak bezela, ta Jainkoa betierean gizanima ezerezean eraldatzeko alduna da. Ez du Jainkoak egitan gizanimarik ilgo, zergunez ilgaitza (inmortal) irazan duelako, baiñan izatean oraínaldiz oraínaldi eusten dio.

Gizanima, izakaria (ente) ez ezen, sorkaria ere ba-da. Gizanimaren izatea, beste sorkari guziena bezela, utsa da, izateko beti ayerge izanik, sorkuaren beařa du-eta. Asiera izan du, baiñan azkenik, izan ba-zezakean ařen, ez du izanen. Bere zergunak alaxe beařesten dio Jainkoari, ta Jainkoak irazan duen ezker, ořenbeste Jainkoak Bere Buruari zor dio. Beraz, gizanima ezerezerako aldarterik ez du yardutez izanen, Jainkoak olakotxerik ezer ere ez duelako nai. Jainkoak, ba, ez du aldarterik, ez ontolojiakorik, ez moralezkorik. Bere ontolojiazko zerguna ta, beraz, izatea, betibat da, batbera da, osobetea da, aldaeziña da. Ta gizanimak bere oiñaři ta eredu antza Argan duen ezker, betikořa ta aldaeziña da bere izatean. Ez du Jainkoak moralezko aldaketarik, ez Bere adimenean, ez Bere naimenean, utsunerik ez duelako, ta izate utsa izanik, adimeneko ta naimeneko osotasuna da. Bere zerguna Jainkoak zearo ezagutzen du, ta aldakořa ez dan ezker zerguna, adimenak eta Bere ezagumena ez du aldarterik. Bere adimena Bere zerguna bezin aldaeziña da berebatez. Ez du, ba, Jainkoak gizanimarik, beingoan ilgaitza berez eta berariz soferazi duen ezker, gerokoan ezerezean eraldatuko.

Irautea da Jainkoa, iraute utsa, alegia, betidanik betidaiño Orain-bat-bakafean irauten duena. Asierarik ez duenez, betidanik danez, betidaniko irautea da. Azkenik ez duenez, betidaiño danez, betidaiño irautea da. Jainkoa ez da noizbait «daneko», baiña bai betidaniko. Jainkoa ez da «daiño» baiña bai «betidaiño». Beretako betidaniko izatea ta betidaiño izatea «Oraíña» da, ta Orain bat da, ta Orain-bat-bakafa da. «Orain» ořek, beřiz, aldirik ez duenez, Aldigabeko Oraíña da, Aldibako Oraíña da.

Irautaldia da sorkaria, ta aldiz dan ezker, aldiz ez da. Ez da iraute utsa, baiñan utsa da alakoaren irautea. Betidanik ez da bere izatean, eta betidaiño ere ez da. Aldizko Oraínean da, edo Oraín-aldian da, ta aldiz aldi dan ezker, aldi eřezkadan da. Asiera duenez, noizbait da, ta noizbait dan ezker, noizbaiteko da. Azkena duenez, betidaiño ez da, ez da betidaiño irautea, ta noizbait dan ezker, noizbaiteko irautea da. Sorkaria noizbait «daneko» da, baiñan ez da betidaniko; sorkaria «daiño» da, baiñan ez da betidaiño, noizbaiteño da.

Beretako betidaniko ez izatea ta betidaiño ez izatea berdin da, noiz-bait bai-da, ta aldiko danez, aldiz da. Ta bere izatea, izatekotan orain dan ezkeru, Orain-aldia da, igaztaldirik ezer ez bai-da, etofaldirik ezer ez bai-da.

Gizanima irautea da, baiñan ez da iraute utsa, bere izatea ere, utsa danez, irautez utsa da-eta. Betidanik ez da, baiña betidaiñoeko da bere artan. Asiera duenez, betidanik ez da, ez da betidaniko irautea. Azkenik ez duenez, betidaiñoeko da, ta betidaiñoeko izatea dan ezkeru, betidaiñoeko irautea da. Gizanima noizbait, daneko danez, ez da betidaniko, baiña betidaiño danez, betidaiñoeko da. Gizanima daiño ez da, baiña betidaiño da, betidangiño da. Betidaiño dan ařen, Orain utsa ez da, orain-aldiz orain-aldi da-eta. Berez eta berariz betidaiño izan ařen, ba, asieraldia duenez, izate-aldi bakoitzeko asiera-aldia da, berez eta berariz izate ez dalako. Betidanik izateko ayerge zan, baiña berez eta berariz betidaiño ere ba-dan ařen, betidanik izateko ayerge geratzen da. Berez izateko ayerge dan ezkeru, edota, obeto esan, alper utsa dan ezkeru, sorkuak dario orainaldiz orainaldi izatean eusteko indafa. Ofela aldiz aldiko Orainean bizi da.

Gaurko Neopositivismua bideketa bat edo metodolojia bat «omen» da. Baiña akutzu metodolojia delako ofen bayezkuna edo atzena:

«Berarizko maila batean kokatzen dan ezagutza ezin diteke Filosofiakorik izan».

Edozelako ezagumena, oñezkeruz, azkenik enpirikoa da edota zentzumenekikoa da. Ainbesteko asoiña edo atzena aterazi ondoren, ordea, metodolojia baiño filosofia dala berealakoan igertzen zayo. Edozelako ezagumena, ba, diñoenez, azkenik eta zerao enpiriko utsa da. Ba ote al da, oratio, zentzumenekoan egizta edo yakin ez ditekenik? Bayetz uste du Russell'ek, eta ofenbeste Matematikaren arloan egizta diteke edo izkuntzarekiko egiztabidea da. Beño-la, ordea, ez da Metafisikarik. Dena Matematikaren eta Enpirismuaren mendean geratzen da. Emazu, ba, Metafisika ta Moralbidea: dena Jeometrian bezela egizta diteke, Leibniz'ek zeritzan bezela, baiñan ez Leibniz'en oiñarietatik ekinda.

## I) Ex-stans: Lekorean-dagoena

Sorkurik (causa efficiens) ez du Jainkoak. Berez da izate. Berez eta berariz da izate. «Zer» esan eta «Izan» esan batbera da Jainkoagan. Asma ezazu Jainkoaren zerguna (esencia): alabeañez eta ezinbestez asmatzen dezu izatea. Ez da bata bestearen ezezkadako efo edo iturburu, ez da bata auřemaila, ez bestea bataren ostemaila. Batera dire biak Jainkoa dan izakia- ren efo ta iturburu, bai yardutez eta bere artan (realmente), bai asmamenez eta gogamenez (conceptualmente). Asmamenez eta gogamenez ere, ba, forma bereizgorik ez da zerguna ta izatea aipatzean. Berebiziko ta egundokoa da bi forma oyen idetasuna, yardutez ez ezik, gogamenez ere. Jainkoaren betitasuna, beraz, zergunez eta izatez da. Zeiñezkorik ezinbestekoena ta naitaezkoena da Jainkoaren betitasuna. Bereiz eziñeko Osobat da betitasuna, betiko Orain da, ez bai-da len, ez gero, ez lenago, ez geroago, Orainbat-bakafa da-eta.

Ex-stat «lekorean» da ta dago Jainkoa berez eta berariz, sorkurik ez duelako. (H)egon dago esatean, gogorazu ondo oraingoan eta gerokoetan, aditzaren efortiko adierara jotan dala, lokaezin eta sendo ta ikeragabe adirazten duela. Iraute ta iragoaren arian erabiltzen da. Ez da, ba, tokiko egonean adirazi nai. Oñezkeruz, ba, sorkutik-at dago beti Jainkoa, gogamenez

ere ezin zayo sorkuarekiko antzik ere asmatu-eta. Ez du sorkutik irtenbeafik, «EX» lekorean egotez egoteko, Orañean izan dedin edo egon dedin. Ex-(s)istemi da berez eta berariz Jainkoa.

Sorkurik ez duen ezkerro, ez du bestengandiko isegiterik. Ezta ezin diteke Jainkoaren isegiterik asmatu ere asmatu gogamenez edo gogamenez ere. Beragan, dandanean eta oso osoan, izate iturria dan ezkerro, Bere artan naikolaiñez dago. Sorkuaren lekorean dago asieratik, sorkutik yare dago asieratik. Obeto esan, yare dago betidanik, ez asierarik, ez lekorerik berariz ez du-eta. Ex-stantia utsa da berez eta berariz, ezere mendeko ez bada, ta ez bai-dago.

Sorkaria ere lekorean dago egonik. Baiñan ez dago berez eta berariz. Sorkua du sorkariak, eta, bere artan egonik dagoela ere, sorkuaren mendeko geratzen da, sorkutik yare ez da geratzen. Beti isegita geratzen da sorkutik, eta sorkua dan ezkerro bere kakoa, kakotik zintzilika dago egonik. Lenengo sortaldia duen ezkerro, geroko betierean ere, baita betierekoa dan gizanima ere, sortaldiz sortaldi dago egonik. Aldiz aldi dago zintzilika, ta sortaldiz sortaldi dago dindilizka. Izatea du, noski, sorkariak, baiñan ez du beretarik, bestetarik du-eta. Bestek sortua dan ezkerro, bestetik isegita geratzen da aurreko ta urengo aldietan ere, lenengo aldi bezin azkenengo aldi ere. Besteren mendeko geratzen da betierean ere, giza animarena gogoratzen ba'dezu, lenengo aldi sorkuarenetik irtenda, sorkuaren mendean berez eta berariz geratzen da-eta.

Gizanima ere Ex-stantia da, baiñan ez da Ex-stantia utsa, utsezkoa baiden. Sorkutik-at izan arien ere ta iragoz egon arien ere, bere izatean sorkuaren mendeko geratzen da.

Beti dago izakarietatik -EX- yare Jainkoa, edozertik eta edozeingandik yare. Yare dago Jainkoa zearo izakarietatik, Norberagandik bakañik dago isegita-eta. Yare dago, baiñan ez dago yareginda, iñork ere ezin dezake yaregin-eta. Ezta asmamenez eta gogamenez ere ezin diteke, ofelaxe ezik, Jainkorik asmatu. Ezin da ezta asmamenez eta gogamenez ere izakarien mendekotasunik Jainkoagan onartu. Onela, ba:

-tò anagkaïon eïnai - quod necessarium est esse-

-alabeañez ba'da izatea-

-adùnaton mè eïnai - -impossibile est non esse-

-eziñekoa da ez izatea-

Baiñan:

-adùnaton mè eïnai -quod vero impossibile est non esse-

-eziña dan ezkerro ez izatea-

eta

-tò anagkaïon eïnai- -quod necessarium est esse-

-alabeañez eta ezinbestez dan ezkerro izatea-

-anagkaïon dunatòn eïnai- necessarium est possibile esse-

-alabeañez eta naitanayez da izangai (izakai)-

Baiña:

-tò anagkaïon dunatòn eïnai- quod necessarium est possibile esse-

-alabeañez eta ezinbestez ba'da Jainkoa izangai edo izateko gai-

-anagkaïon eïnai- necessarium est esse-

-alabeañez da izate.-

Zera,ba:

- tò anagkaïon dunatòn eïnai –quok necessarium est possibile esse–
- alabeaérez eta ezinbestez izangai ba'da (dana)–
- dunatòn esti anagkaïon eïnai –possibile est necessarium esse–
- ditekena da alabeaérez izatea–

Ta Jainkoa:

- tò dunatòn eïnai –si possibile est esse
- ditekena ba'da izatea–
- anagkaïon eïnai –necesse est esse–
- alabeaérez da izatea.–

Baiña sorkaria:

- dunatòn eïnai –si possibile est esse–
- ditekena ba'da izatea–
- endejómenon eïnai –contingit esse–
- gertagai da, gerta ditekena da–, baiñan ez da alabeaérez eta ezinbestez.

Jainkoa, oratio:

- dunatòn eïnai –si possibile est esse–
- ditekena ba'da, izangai ba'da–
- anagkaïon eïnai –necessarium est esse–
- alabeaérez da izate–, Bere zerguna berez eta berariz izate utsa dalako.

Baiña bat-edo-batek galde dezake:

- anagkaïon eïnai –necessarium est esse–
- alabeaérez da izatea–
- ontzat emanik, ontzat eman al diteken beste onenbeste:
- dunatòn eïnai –possibile est esse–
- ditekena da izatea–?

Ořela ez ba'ledi,ba, beste esakun muturkari au letorke aúez aúe:

- mè dunatòn eïnai –non possibile est esse–
- ditekena ez da izatea–
- Eta bat-edo-batek erantzuten ba'du: ortan ez legokela muturkaria, alabeaérez esan bearko luke beste ontan datořela muturkaria:

- dunatòn mè eïnai –possibile est non esse–
- ditekena da ez izatea–

Baiñan agi da, bi esakun oyek –ez da ditekena izatea– ta –ditekena da ez izatea– esakun muturkariak direla aipaturiko esakunari buruz:

- anagkaïon eïnai –necesse est esse–
- alabeaérik eta naitaezik da izatea–

Jainkoari buruz, ba, izan al ba'diteke, alabeaérez da izatea. Ořezkeroz, Jainkoak izateko edo gertatzeko bepetan eta begi ertsideki bakoitzean «bai ta ez» delakorik ez du inõlaz ere. «Nai ta ezin» delakorik ez du. Baiña «nai-ta-nai-ez» da. Ez da «nai ta ezin» delakorik, baiña «nai-ta-ez» da. Ez du «nai ta ezingorik», baiña delako «naitaezko» da. Ez da «nai bai ta nai ez», baiña «naitanayezkoa» da. Bera alabeaérez eta ezinbestez da izan, «naizkorik» ez du-eta. Baiña sorkariari buruz –izan al ba'diteke– si possibile est esse–, gerta diteke izatea –contingit esse–, baiñan ez da alabeaérez izate, gerta diteken bezela, ez-gertatzea diteke-eta. Sorkaria izateko «ayerge» dan ezkerro, «bai edo ez» batera da, baiña ez da batera «bai-ta-ez».

Gertatzeko edo-bai ta edo-ez batera dire, izan eta ez-izan batera izan ez ditezken afen. «Nai ta ezin» izan al ba'litez ere, baiñan iñola ere ez dire «nai-ta-nai-ez». Ez dute berez «naitaezkorik», ez «naitanayezkorik». Ayerge berez diren ezkerro izateko, ez dire alabeahez eta ezinbestez, baiña «naizkoak» (libre) dire izateko, baiñan ez beren aldetik, Jainkoaren aldetik baizik.

Naiko da, ba, Jainkoa izangai izatea, ditekena izatea, ta izateko-gai izatea, alabeahezko ta naitaezko yardutez izateko. Ofezkeroz, befiz, Orain-bat-bakaña da Jainkoaren alabeahezko betizatea.

Izakariak, ordea, yaregiñik egon afen ere, sorkutik-at eta lekorean ba-idagoz, izatez Jainkoagandik isegita dagoz. Izatez eta yardutez dagoz Aren-gandik isegita, Jainkoa naitaezko ta alabeahezko sorkua dan ezkerro, lenengo ukaldian bezin bigaenean eta ufengoetan ere Aretxen mendeko berebatez geratzen dire-eta. Lenengo aldian, ba, izatera yautzi egiteko Jainkoaren beaña baldin ba'dute, ufengo aldietan ere berebateko ta yardutezko mendekotasunean geratzen dire. Yardutez ez ezik, baita asmamenez ere izakaria sorkuari begira geratzen da. Sorburuaren eragitez baldin ba'dago egonik, lenengo ukaldian bezin ufengoetan ere izate-aldiz izate-aldi berebateko eragitearen beahez geratzen dire.

Jainkoa yare da oso osorik eta Bere artan dago egonik, eta eragon daragoyo Bere zergunari. Bere zergunari ta izateari datxeko Jainkoa.

Ex-sistentia utsa da, egotez ez ezik, eragotez ere Bere jatoñizko izateari daragoyo-eta. Ex-sistentia utsa da, bestengandik berez eta berariz eragotez ere betidanik EX «yare» dagoelako. Orain-bat-bakañean egotez ez ezik, baita eragotez ere Orain-bat bakañean daragoyo Bere buruari. Orain-bat-bakañeko Ex-sistentia utsa da, Orain-bat-bakañeko eragote ta iraute utsa da. Ez da eragote-aldia, alako aldi bakoitza iraute-aldia litzakelako, ta iraute-aldiak lenbiziko aldia du izateko. Jainkoa, ordea, betizan da. Betiraun eta betizan berdin eta batbera da Jainkoagan, beste iñundiko sorbururik ez duelako. Batberdin da Jainkoaren egotez-irautea ta eragotez-irautea, sorkuaren mendetasunik ez duelako ta betizan dalako.

Sorkaria, ordea, izateko ayerge danez, dangiño da ayerge izateko, ta ofezkeroz, berebateko ayergetasuna edo kontinjentzia du izateko lenengo izate-aldian eta ufengoetan. Bein sorkutik irtenda ere, sorkuari begira geratzen da bere egotean ez ezik, bere eragotean ere, aldi bakoitzeko «irtetzen ari da»-eta. EX dago ta yare dago bere egoeran, bere artan egonik dagoelako. Baiña ba-daneko, ondorio danez, bere sorkutik isegita geratzen da betidangiño. Bere zerguna betidanik ayerge baldin ba'da izateko, ba-daneko ere beti ayerge ta ba-daiño ere ayerge geratzen da, eragotez ere bere sorkutiko «irtetzeari» dagoka-eta.

Ez du EX-sistentia utsa sorkariak, utsa bai-da alako Ex-sistentia, utsa bai-da alako izatea. Utsa ba'da bere Ex-stantia, utsa da Ex-sistentia ere, egotez bezin eragotez izate-aldi bakoitzean sorkuaren mendeko geratzen da-eta. Beraz, oraiñ-aldiz oraiñ-aldi dago egotez eta eragotez.

## II) Prae-stans: Auñean dagoena

Prae-stans auñean dagoena da. Jainkoa da auñean ez ezen, auñenen ere dagoena ta lenengo dagoena. Berez Jainkoak ez du auñerik, ez auñenenik. Ez du ez lenengorik, ez auñerik ez aldiz, ez tokiz, betidanik da-eta. Berez

ez dago -Prae- edo -Prò- edo -Aúfean-, beti bai-da Ex-stans: «Sorkutik yare dagoena». Betidaniko danez, ez du auferik, ez ezezkadako auferik edo lenenik, ez aldiz, ez tokiz. Betierekoa danez, ez dago asieran aldiz, ez aúfeko aldean tokiz, ez aldirik, ez tokirik ez du-eta. Asierak dakar lenengo izatea, ufengo izatea, azkena izatea. Izatea da uts utsik Jainkoa, izate utsa da, ta Oraintxe-ontan da izan, Orain-bat-bakafean dago egonik Bere izatean. Oraina berez ez da aldia, orainaldia ez ba'ledi baizen. Aldirik ez du Jainkoak, betiereko Orain-bat-bakafa da, bigafeangorik gabe da-eta. Ez aldi, ez alde, ez du Jainkoak, tokirik ez duen ezketiño, toki-alderik ere ez du-eta. Beraz, ez du toki-alderik, ez du aúfe-alderik, ez du egotez aúfe-alderik, aldigabeko ta aldegabeko egoera bereizia ta berebizikoa du. Ez da bere-aldikoa, ez beti-aldikoa, Bere-izatekoa baizen, Bere egoera. Ofezkerroz, Betizatekoa da.

Sorkariak, sorkua duenez, aldia du, lenbiziko aldia du ta asiera-aldia du. Sorkua duen ezker, asiera du, ta asiera duen ezker, lenengo aldia du. Baiña lenengo aldia ez da Jainkoari begira asma ditekenik ezer, olakorik ezin da-eta. Lenengo aldia ta asiera duen ezker sorkariak, beste sorkarien aúfetik egon diteke egonik. Aldiz aldiko ezezkan doana dan ezker, bata bestearen aúfetik egon diteke egonik. Aldiz aldiko ezezkan doana dan ezker, bata bestearen aúfetik izan diteke, ta lenengo asiera izan diteken bezela, beste sorkari guzien aúfenena izan diteke sorkaria. Aldiz dago sorkaria besteak baiño lenago, aldia bai-da bere kategoria. Aldiz dagoena tokiz ere ba-dago, kategoria bai-da bata bezin bestea. Aldia izan eta tokia ez izan, eziñaldia da. Asieran ba'da sorkaria, asierako tokian dago egon, ta lenengo aldian ba'da, lenengo toki-aldean dago. Aldia bezin aldea du sorkariak. Baiña lenengo aldea ez da Jainkoari begira asma ditekena, olakorik ezin da-eta. Aldea kategoria da, ta Jainkoak ez du kategoriarik edota edurik. Sorkaria, ba, aldikotasuna ta tokikotasuna da bere izatez eta egotez. Aldian aldiko ta tokian tokiko da.

Nolabait, ordea, Jainkoa ere sorkari guzien aúfenena da, guzien aúfean dago egonik, lenengoa bai-da. Bera bai-da sorkari guzien sorkua, ta sorkua, befiz, yardutez eta gogamenez ondorioa baiño lenago ta aúfenago da. Gizanima ere, asiera duelarik, eta asierako aldia duelarik, aldikoa da. Sorkaria danez, lenengo aldia du ta aldiz aldi da. Sorkaria danez, sorkua du, ta sorkua dan Jainkoa anima dan ondorioa baiño lenago da. Bein daneko, beingoz eta betidaiño da, baiñan ez betidaniko. Sorkaria dan ezker, zenbagaena da. Jainkoa, befiz, sorkari guzien lenengo sorkua dan ezker, zenbagaenik ez duelarik, urenena ta aúfekoena da. Beraz, Jainkoa izatez da sorkari guziak baiño lenago ta urenago, baiñan ez da zenbagaena aldi kategoriaz eta toki kategoriaz. Emazu sorkaririk ba-dala, sorkaririk ez-dala: betidanik da Jainkoa, betierekoa da zergunez, zerguna berezko izatea dalako. Bere artan dago lenengo aldirik gabe, aúfeko tokirik gabe, ezelangoz zenbagaenik gabe. Bein bakafeko zut-egonean dago, bein bakafeko egotez dago, bein bakafeko eragotez dago. Bere ez dago noizbaiteko bein batean, ez noizbaiteko beingo batean, baiña betiko bein batean da, beingozko batean da, beingoz da osobatean. Ez da beindanik-bein, baiña betidanik bein da, ta beingozko bein da. Betidaniko bein orain da, beingozko bein orain da.

Izkuntzek eta Kulturek oro sorkarien ezezkada luzean buruko bat asmatzen dute. Izakarien eta sorkarien Lenburu bat izendatzen dute.

Gerkerak –pròtos– aipatzen du; laterak –prae– imus, primus–aipatzen du; doitzera –der Erste– aipatzen du; ingelera –the First– «buru (zagi)» dala aipatzen du; erusiera –perbui (pierbui) (per-prae-); Euzkerak «lenengoa, auñena» aipatzen du; heberkerak –ri’sôn–; akadierak –mahrû– «auñena» ta –panium– «auñean (arpegi auñeko); egiptera –tpy (tepi) «lenengoa» (tp = tep = «burua» erotik eratoña). Zenbagañen deritzayote izkuntzek Jainkoari, ta aldi kategorian alabeañez kokatzen diren sorkari oro baiña «lenago», izakari guzien aitzindari dalarik, asmatzen dute. Euzkerazko «lenengoa, auñena» dan zenbagañena ez da «bat» zenbaki kardinaletik eratoritzen. Ezta arestian goragoxe aipaturiko izkuntzetan ere. Berez ez da zenbagañen Jainkoa, ez zenbagañen tokirik, ez zenbagañen aldirik, ez beste inolazko kategoriarik ez du-eta. Alaz ere, izkuntzek nolabait sorkarien kategoriatik ateratzen dute Jainkoa, ta lenengoa aipatzean, maila bereizi ta eite bereizi bakar batean, jainkozko bakartadean, asmatzen dute. Ez du, ba, beñero esan, sorkarien kategoriarik, ez zenbagañenik, ez lenengorik, ez urengorik, ez azkenik.

Betitasunak ez du toki, ez aldi, ez bitarte, ez maila. Beti da Orain-dandean, eta aldigabeko izate utsa da. Guk-geuk asmatzen degu Jainkoa sorkari eretzkadako Lenengoa, Auñena, Lenburua, Buru (zagia). Izkuntzek eta Kulturek asmatzen dute Jainkoa Buru ta Auñena. Erezkadako sorkariak, bakoitza tokian tokiko, aldi aldiko, mendean mendeko, zenbagañetan zenbagañeneko dire. Baiña Bera sorkua danez, eta sorkari oro, oro ondorio direnez, Lenburu dan Jainkoari begira geratzen dire, Aren mendeko orobat direnez. Beraz, Jainkoak dena-den-dena mendekoz mendeko ipintzen du, urengoz urengo lotzen du, zenbagañenez zenbagañen ainbanatzen du. Oñela, auñerik ez duelarik, auñendaria da; zenbagañenik ez duelarik, lenengoa da; aitzinerik ez duelarik, lenburu da; lenik ez duelarik, lendakaria da; bururik edo azkenik ez duelarik, Alfa ta Omega da; eretzkadarik ez duelarik, Auñesku da. Prae-stantia da.

### III) Ad-stans: Alboan dagoena

Ad-stans ondoan edo alboan edo aldamenean dagoena da. Jainkoak ez du alborik, ez alderik, ez ondorik, ez aldamerenik. Bere artan dago, ta berez eta berariz dagoen ezketiño, ez du albokoaren, ez aldamenekoaren, ez ondokoaren beañik izateko. Bere izatean zearo dagoen ezkerok, oso osoan dago, –EX– «yare» dago, ta aldameneko eragindurarik ez du. Sorkurik ez duen ezkerok, berez eta berariz bai-da izate utsa, Bere izatean irauteko ez du alboangorik, ez ondoangorik, ez aldameneangorik. Bere izatearen euskaririk, ba, ez du Bere aldean, Bere ondoan edo aldamenean.

Asmamenez ere Jainkoaren zerguna ta izatea batbera ta ideko dire. Gogamenez ere batbatetan bat eta berbera dire zerguna ta izatea. Baita gogaiz ere Osoko bat bakaña da zerguna ta izatea Jainkoagan. Bata bestearen alboan ez, baiñan izatea zergunakin bategiñik dago; bata bestearen aldamenean ez, baiñan izatea zergunaren zerguna da zearo. Beraz, Jainkoarekiko Ad-stantia Ex-stantia utsa da, yare ta zearo dagoen ezkerok, aski du Bere artan eragotez egotea. Ad-sistentia’rik bikaiñena da Jainkoa, Berberagan bai-dago oso osorik, bategiñik, zearoenik, gogaiz ere bitan bereiz ezin ditelarik.

Alboan edo ondoan egotekotan, sorkariaren alboan eta ondoan dago Jainkoa. Aldamenean egotekotan, sorkariaren aldamenean dago Jainkoa. Ez dago, noski, egote kategoriaz, alako edurik Jainkoak ez du-eta. Nun-egoterik edo nun-kategoriarik ez du Jainkoak, ez sorkariaren ondoan edo alboan, ta are gutxiago Beragan, ain bategiñik eta oso osorik dagoen ezkerro, zearo bakuna da-eta. Baiñan, alaz ere, berez sorkaria, berez utsa dalako, aldioro beera beaŕean datoŕen ezkerro, Jainkoaren beaŕa du izateari eusteko. Sorkutik sorkariak lenengoz bere agerkuntza ukan duen ezkerro, bigaŕen aldian ere ager al dedin, sorkuaren eragitea bear du izan. Jainkoaren alboko indaŕa ta eragitea alabeaŕez du sorkariak izatera yautzi egiteko. Oŕenbeste da Jainkoaren Ad-stantia, edozer lenbizikoz izakari izan daiten. Baiña, sorkaria izatera yaurti ondoren, utsa ta utsala izanik sorkariaren Ex-stantia, beŕiro ere Jainkoaren yaurti beaŕa du izaterako, bestela sorkaria ezerezera itzuliko litzake-eta. Beraz, sorkariak Jainkoaren alboko eragitez edo eragotez irauten du izatean. Beraz, Jainkoaren Ad-stantia uneoro ta aldioro alabeaŕezkoa zayo sorkariari, ezerezera eror ez daiten, eta izatean egon dedin. Izatean ez ezik, sorkariak bere yardutean ere Jainkoaren alboko eragitea bear du. Yardutearen zaiña zergunean dago. Beraz, sorkariaren zerguna, berez erorkoŕa izanik eta utsa, Jainkoaren eragotez izatera datoŕen bezela, baita bere ekitea ere eragote beraren beaŕez ari da. Zerguna, ba, nola, ekitea ere ala.

Sorkaria, ba, izan ditekena da, izangaya da, baiñan ez da berezkoa ta alabeaŕezkoa bere izatea. Oŕezkeroz, ba:

–tò mèn gàr dumatón eînai –tò possibile esse–  
 –ditekena ba'da izatea, izangaya dalako–  
 –tò endéjeszai eînai –tò contingit esse–  
 –gertagáŕi da izatea, gerta diteke izatea–

Zera, ba:

–tò ouk adúnaton eînai –quod non est impossibile esse–  
 –eziña ez ba'da izatea, eziña ez dana izatea–  
 –tò mè anagkaïon eînai  
 –non necessarium est esse–  
 –ez-da naitaezkoa izatea, ez-da alabeaŕezko izatea–

Beraz:

–tò ouk adúnaton eînai –quod non est impossibile esse–  
 –eziña ez-dana izatea–  
 –tò dumatón eînai –possible est esse–  
 –ditekena da, izangai da–

Ta batera:

–tò ouk adúnaton eînai –quod non impossibile est esse–  
 –eziña ez-dana, ezin ez ba'diteke, ezin ez-ditekena–  
 –ouk anagkaïon eînai –non necessarium est esse–  
 –ez da alabeaŕezkoa izatea, ez-da naitaezkoa izatea–  
 Ori, baiña, dan ezkerro,  
 –tò ouk anagkaïon eînai –quod non necessarium est esse–  
 –alabeaŕezkoa ez dana izatea, alabeaŕezkoa ez ba'da izatea–  
 –dumatón mè eînai –possible est non esse–  
 –ditekena da ez izatea–

Baiña:

–tò dunatón mè eînai –quod possibile est non esse–  
 –ditekena dana ez izatea, al ba'diteke ez izatea–  
 –endejômenon mè eînai –contingit non esse–  
 gertagarî da ez izatea, gerta dîteke ez izatea–

Ofezkeroz, ba, sorkaria berez izan diteke ta ez-izan diteke, baiña bate-  
 řen beste izan diteke ta bitik bat izan diteke, baiñan ez biak batera. Beraz,  
 gertatzea diteke ta ez-gertatzea diteke, gerta diteken bezela ez-gertatzea di-  
 teke. Beraz, ez-gertatzea diteken bakoitzean, sorkuaren eragitea bear du ta  
 sorkuaren beara du bere alboan, izatean eus dezayoken. Sorkariari buruz,  
 ba, «alboan-dagoena» da Jainkoa, bestela sorkaririk ez da-eta.

Kontinjentzia utsa da sorkaria, ayergetasuna utsa da sorkaria, edo sor-  
 kutik agertu dan izakaria. Orainaldiz orainaldi ta betialdiz betialdi erortear  
 dago, galtear dago, ezerezerakoan dago. Kontinjentzia utsa danez, orainal-  
 di bakoitzean –contingit– «gertagarî da». Baiña gertagarî dan bezela, gerta  
 diteke ta ez-gertatzea diteke bere jatoriz eta sorburuz. Ez-gertatzea, beřiz,  
 izatean, aldiz aldi ta uneoro erorkera da, erortaldia da, beerakada da. Ta  
 alde batera bertan beera utzi ezkeru, ez da gertatzen. Jainkoak, ba, albora  
 ta alde batera eror ez dedin, eusten dio, aldean dagokiolarik Bere eragitez,  
 eta sorku indareř iraun erazten dio. Naiko du Jainkoak uneoro eragiña  
 etetzea, ta bertan beera yareginda geratzen da sorkaria. Jainkoak sorkariari  
 buruz duen Ad-sistentia uneoro darion indar zifioa da, uneoroko eutsial-  
 dia da. Indar zifioa etetzea eutsialdiari yaregitea da, ta eusteari yaregin-ala,  
 bertan beera uzten dio sorkariari.

#### IV) In-stans: Bere-baitan-dagoena

–IN– aurizkiak «nun» dagoen adiraz dezake. Beraz, tokia adirazten du  
 batzutan, baiña bestetzutan ez du tokirik adirazten. Oraingoan, IN-stans  
 aipatzean, ez du tokirik adirazten. Tokia, ba, kategoria da, ta oraingo on-  
 tan ez dagoka tokiari. Ez da oraingoan «Nun-kategoria». «Irozokia» adi-  
 razten du, ta berez eta berariz dan ezkeru Jainkoa, irozokia zayon zerbait  
 ori Beragan bear du izan. Ezta «Beragan» aipatzean ere, –gan atzizki ofek  
 ez du «gaiñean» adirazten, ez du ganekorik edo gaiñekorik adirazten. «Be-  
 re baitan» dagoena da Jainkoa. Irozokia adiraztean, zerbaitan dago egon  
 Jainkoa, ez nun-baitan, Jainkoak tokirik ez du-eta. Zer-baitan dago, ba,  
 Jainkoa, Bere baitan dagoenean, ez nun-baiten. Irozoki bakařa, beřiz, Bere  
 zer-guna da, izatekotan zer-baiti dagokala, agi da-eta. Bere zer-gunean  
 ezik, ez du ezer-tan egon beařik, ez du beste ezer-tan egon beařik, ez du  
 beste zer-baitan egokera iduki beařik. Ez du, ba, zer-gan egon beařik, ga-  
 nean ez dago-eta. Ez du zer-baitengan egon beařik, ganeko tokirik ez du-  
 eta, bere zer-baitan baizik.

Zer-bait da Jainkoa, baiña berezko ta alabeařezko zer-bait da. Zer-bait  
 dan bezela, ordea, nor-bait ere ba da, ta Berbera da Jainkoaren zer-bait eta  
 nor-bait. Ta alakotxe Nor-bait da izan ere, nor-bait bedegařa ta bakařa  
 bai-da, Berbera dan bezin beste nor-bait ez bai-da, ta Berbera dan bezin  
 Nor-bera dan ezkeru, Norbera dan bezin beste norbait ez da.

In-stans esan, sendo ta lokaezin egon berdin da. Sendo ta lokaezin nor-  
 bait edo zerbait egotekotan, Jainkoa da. Bere zerguna berez eta berariz

izate dan ezkeru, beti da betibat, beti da usbako zer-bait eta zer-bat. Sor-  
kurik ez duen ezkeru, ez du beste norbaiten edo zerbaiten mendeko izan  
beafik. Norbait dan ezkeru, Norberagan edo Norbera baitan dago sendo  
ta ikerazzin. Argiago esan, Norbera-baitan dago irozoki sendo ta lokaezi-  
ñean.

In-stantia utsa da Jainkoa. Bere zerguna izate osoa izanik, Bere baitan  
osorik dago, ta usbako izatea dan ezkeru, irozoki gotoñean dago, ta irozo-  
ki gotoña Berbera izanik, Bere baitan soilki dago.

-IN- esatean, Jainkoarekiko irozoki bakaña, goragoxe aipatu bezela,  
Bere zerguna da. Beraz, Bere izatean aldarerik ez du, ta etengabeko zer-  
guna ta izatea Bere baitan duen ezkeru, etengabeko irozokia Bere baitan  
du. Bere zergunean ezik, ez du bestengandiko irozokirik, ez du bestengan  
eragoterik, ez du Bere baitan ezik iragorik, ez du beste ezertan irozoterik.  
In-sistentia utsa da, ba, Jainkoa, Bere baitan bai du eragote ta irago bakaña,  
ta beraz, oiñondo lokaeziña ta oiñañi sendoa.

Berez eta berariz ez da, bestez baizik, sorkaria. Sorkua duen ezkeru,  
beindanik bein sorkutik irtenda, bere artan dagoenean, nolabait yare gerat-  
zen da ta nolabait bestengandik isegita. Bere artan dagoelarik ere, mate-  
riazkoa ba'da, tokiren batean dago, nun-baiten dago, nun-kategoria bera-  
rizkoa zayo-eta.

Baiña bere izatean egoteko, irozokiaren beaña du sorkariak. Baiñan iro-  
zokia, utsa danez bere zerguna, utsa da. Bere izatea ere utsa da berez, ta  
aldi bakoitzeko ozta dago bere artan. IN-ka diardu, bestek eskeiñitako  
izatez bere artan egoteko. Baiñan alpeñik diardu, bestek eskeiñitako izatez  
dago bere artan-eta. Bestek, ba, sorkariaren sorkua danez, aldiz aldi es-  
keintzen ez ba'dio, bere berezko ezerezero itzultzen da.

-IN- erorkoñean dauntza bere baitako irozokia dan zerguna, betikoz  
ezerezerakoan dago-eta. Lenengo aldian, ba, sorkuaren eragitez ba'da izan,  
irozokia ere sorkuaren eragitez dago. Lenengo aldian bezelaxe, ufengo al-  
dian ere aretxen eragitez du irozokia. Utsetik utsean erakañi du sorkuak  
sorkaria lenengo aldian. Bigafenean ere berez utsa dan ezkeru, sorkuaren  
eutsibeaña du irozokiak, bere izatean egoteko. Aldiz aldi, ba, ba-danean  
ere, utsa da, utsaldia da. Izate-aldiz izate-aldi bere baitan IN-ka ari danean  
ere, utsaldiz utsaldi ari da utsari iges egiteañ.

Loka dago aldiz aldi bere izatean, bere irozokia, izatez utsa danez, loka  
dagoelako. Bere izatea maxkala da aldiz aldi, aldiz aldiko irozokia erorko-  
ña ta jauskoña dalako. Bere «Oraiña» ez da betea ta osoa ta betibatekoa,  
izate-aldiz izate-aldi dana oraiñ-aldiz oraiñ-aldi da-eta. Ta berez eta bera-  
riz ezerezetik aldirako erakaña izan dan ezkeru, berez ere aldiz aldi ta  
oraiñ-aldiz oraiñ-aldi ezerezerakoan dago. Aldiz aldi dago etziña bere iza-  
tera, baiñan utsa dan ezkeru izatea, aldiz aldi edo oraiñ-aldiz oraiñ-aldi da-  
go ezerezero etziña. Bere IN-ka utsa da.

In-stans dan bezelaxe, IN-sistens ere ba-da sorkaria, bere baitan izateko  
alegiñez ari da-eta. Baiña bere irozokia berez ezereza dan ezkeru, aldi ba-  
koitzean erortear dago. Bere irozokia berez utsa dan ezkeru, aldiz aldi ut-  
sari utsa geitzen zayo ta bai In-stantia, bai In-sistentia utsari dagoka egi-  
tan. Oraiñ-aldiz oraiñ-aldi etzaten da beragan eta bere baitan sorkaria, bai-  
ñan irozokia utsa dan ezkeru, betibateko utsa da sorkaria. Beraz, sorkaria  
betibateko ezereza da jatofiz, ta bere Nunc-In-sistens ezerezeroen betitasu-  
na da, ezerezeroen iragoa da.

## V) Con-stans: Osokoan-dagoena

Jainkoa ez dago Orainean egotez eta iragoz soilki Bere artan. Osolaiñeko Orainean ere ba-dago. Osobateko Oraina da. Jainkoa berez eta berariz da Osoko bat. Atalbakoa da dandaneko Osokoan. «Simplex» zera da «hamplex» edo «tolesbatekoa». Jainkoaren zergunak ez du toles bat bai-zen, biko edo aunizko tolesik ez du. Toles bat-duna edo batuna, edo bat-kuna edo bakuna da. Ez da bikun edo aunizkun. Gizadimenak bitan bereizten ditu Zera ta Izana. Baiña gizadimen kazkarak Jainkoaren Osokorik batetan ezin duelako asmatu, bitan adirazten du, ots, Zer eta Izan.

Bakuna da Jainkoa Bere zergunez eta izatez. –Con– aurizkiak euzkal atzizkiaren –kide– esan nai du, zati-kideak eta atal-kideak Osoko bati dagozkion gaikiak (elementos) adirazten ditu. Baiña Jainkoari dagokan Osokoari ez datxeko –kide– alakorik. Jainkoaren zerguna ta izatea ez dire Osokoaren zati-kide, ez atal-kide. Ez dire atalak edo zatiak Jainkoaren zerguna ta izatea, ez osokiak ere. Ez dire bi atal-kide, ez bi osoki, ez bi gaiki, ez bi osa-kide, ez atalik, ez osokirik, ez osakiderik ez du-eta. Jainkoaren zerguna bitan gogamenez ere asmatzea ez da auzu: izangai ta izaki; izaki utsa asmatzen da berez eta berariz.

Jainkoa dan izatondoan (substantia) ez da adimenik eta naimenik ere bereizten, ezta gogayerarik (concepto) ta nayerarik (acto de la voluntad) ere ainbanatzen. Jainkoa zearo bakuna da, ta zearo bakuna danez, zearo bakana da, ta zearo bakana danez, zearo banaka da. Bere artan zutik dagoen Osokorik bikaiñena da. Bere baitan egotez dagoen Osolaiñekorik laiñena da. Betierekoa da Osoko ortan, betierekoa da Osolaiñeko ortan Jainkoa, berezko ta berarizko Osokoa danez, betidaniko ta betidaiñokoa da-eta.

Berez eta berariz Jainkoa ez dago sorkariekin eta beste izakariekin batera. Berez ez dago Jainkoa sorkariekin –Con– «batera» ez dago pila batean-eta. Baiña betitasunak aldi oro besarkatzen dituen ezkerro, nolabait Jainkoa aldi ezezkadako sorkari guziekin batera dago. Betitasuna sorkariekin –kide– litzakelakoan asmatzen degu, betitasuna aldi guzien –kide– bai litzan iruditzen zaigu. Baiña Jainkoaren betitasuna betibateko Orain bat bakara dan ezkerro, sorkari oro aldiz aldiko ezezkadan doazelarik, Ari begira gertatzen dire, ta bere artean –kide– dire. Sorkuari begira daudenez, aldiz aldi izatean kide zaizkio Jainkoari. Baiña Jainkorik ez da kide sorkariekin, alako kidegorik ez bai-du, betitasuna noizbaitekorik ezer ezin diteke izan-eta. Noizbaitekoak sorkariak dire. Sorkari oro aldiz eta tokiz ezezkadan doazelarik, sorkuarekiko ondorio direnez, kidegoz ez, baiña mendekotasunez ari dire. Ken ezazu betiereko Orain ori, ta sorkari oro sakabaturik ezerezean murgilduko dire.

Oboaren erdokia bezela asma ezazu Jainkoa, ta oboko puntu oro Ari begira daudela gogorazu. Oboko erdokia dan Betiereko Oraina Jainkoa da. Oboko puntuak sorkariak dire, ta puntu oro bezela, Jainkoari begira doazi aufera. Sorkari oro ez doazi batera, aldiz aldi ta tokiz toki doazi-eta. Zebatu ditezke sorkariak aldizkako ezezkadan doazenean, eta bata ez da bestea. Bata dagoen tokian ez dago bestea. Baiña denak batera besarkatzen ditu betiereko Oraina dan Jainkoak, aldirik, ain zuzen, ez duelako, tokirik ere ez duelako, aldi ta toki oro Berak izendatzen dituelako, ta ezezkadan ipintzen dituelako. Jainkoa Bera ez doa ezezkadan, ezezkadan doazenak

sorkariak dire-eta. Jainkoak Berak ez du aldarerik, aldaritez aldarte doazena sorkariak dire. Oek gertatzen dire orainaldiz orainaldi, ufatsean doazi aldiz aldi, ta aldaritez aldarte Aren inguruko dantzan suntzitzen dire. Baiña Jainkoa betiereko Orain-Osoko-batean dago.

Con-stantia (sùn-(s)istemi) utsa da Jainkoa, Osoko batean ezertxo ere galtzeke, ez irabazteke dago-eta. Zatibako Osokoa dan ezketiño, zatien beafik ez du. Atalbako Osoko batean dauntza beti. Orixe da Bere Con-stantia: Osoko-bat-bakafean-egotea.

Con-sistens da Jainkoa. Egotez ez ezik, eragotez ere Bere Osokoari dagoa. Bere zergunari, bakuna ta bakana dan ezker, daragoyo, ta naiko du betibat irauteko. Bere izateari, bakuna ta bakana dan ezker, daragoyo, ta naiko du betibat irauteko. Osoko-bat-bakuna dan ezker, berebiziko Consistentia da. Egotez Nunc-Con-stans dan bezelaxe, eragotez ere Nunc-Con-sistens da, Orain-Osoko-batean-daragoyoena da. Ez dire, ordea, bi aldi, ots, egote-aldi ta eragote-aldi, Orain-bat-bakafeko irautea baizik. Egotea asma ezazu, eragotea asma ezazu:bigafena ez da lenengoaren aldia, biak batera baizik, Jainkoak aldirik, ez lenengorik, ez bigafenik, ez du-eta. Bigafena lenengo gogayaren betegafia da, gogayera beteagoa da, gogayera edazagoa da.

Erdikiñik ez ba'du Jainkoak Bere zerez, ez du osakiderik, ez osokirik. Ez da osoki, Osoko baizik. Ez du Osoko izateko armenik (pontencia pasiva). Osokoa baiño lenago dire erdikiñak eta osokiak. Beraz, Osoko bakuna ez ba'ledi Jainkoa, lenago lirake Bere erdikiñak eta osakideak, eta alako Jainkorik ezin da izan, berez eta berariz dalako izan edo izate. Ori litzake bai yardutez, bai gogamenez. Zatikiñak, befiz, elkafeekin -Con- «kide» egundoko Osoko batean bilduko ba'lira, aldiz aldi izanen litzake Jainkoa. Igikuna ukanen luke Jainkoak zatika Osoko batean burutu ba'ledi. Igikuna, befiz, berez eta berariz zenbatu diteke, ta Osolaiñerakoan zatika doan ezker, erdikiñen aldiak bata bestearen ufatsean zenbatuko lirake. Zera, ba: -toûto gâr estin o jrónos arizmòs kinéseos katà tò próteron kai ústeron - Tempus enim nihil aliud est quam numerus motus secundum prius et posterius - Aldia, ba, auxe baizen ez da: Igikunaren ukaldiak, auferkoz eta ufengoz, zenbatuta - Edota: -Igitaldien eferzkada, auferkoz eta ufengoz aipatuta - Oferkeroz, orainaldietan eta aldi eferzkadan egon legoke sorkaria. Baiña Jainkoak, berez eta berariz izate utsa dalako, ez du ezelango armenik, Osoko-batean dagoelako.

Sorkaria ere, noski, bere artan osoko bat da. Baiña berez eta berariz beti izateko ayerge dan ezker, bere Osolaiña ere aldiz aldi dago egon, orainaldiz orainaldi dago egon bere osokoa. Eta berezkoa ta jatofizkoa ez dan ezker bere osokoa, aldi bakoitzean ere bere Con-stantia galtear dago egon. Bai yardutez, bai gogamenez bere zatiak dituen ezker sorkariak, bere zatietara aldiz aldi itzultzeko jarioan dago. Sorkariaren Con-stans orainaldi eferzkadan Osorakoan egotea da, baiña berebateko eferzkadan zatiketarako jarioan dago.

Materiazkoa ba'da sorkaria, erdikidez osatua dago bere artan Osokoa, ta gogamenez berebat asmatzen da. Zatiak osokiak dire, ta osokiak osokoaren osakide dire. Beraz, zatikideak osoko bat egiten duten aldi, beti dire erorkide ere. Egote-aldiz egote-aldi dagoen bezelaxe, ba, erorte-aldiz erorte-aldi dago sorkaria. Beti dago galterako bidean Osokoa, eta aldi bakoitzean osabeafez ari dan bezela, zatietan lertubeafez ari da. Osaldiak be-

zin erortaldiak zenbatu ditezke, goraldia bezin beeraldia ezezkan gertatzen da-eta. Jainkoak Bere Osokoan zenbatu eziñeko Orain-bat-bakara, aldirik ez duelako, duen bezela, sorkariak bere osokoan orainaldi aunitz ditu, aldiz aldi osabea ez ari dalako.

Gizanimak ere, materiazkoa ez izanik, eta bakuna izanik, erdikiñik gabe dago bere osokoan. Yardutez bederik ez dago egitan erdikiñez osatua bere osokoan, zergunez eta izatez osatua dagoen afen. Izatondoa (substantia), bakuna izanik, osoko bat da, ta ez da ari osabea ez aldiz aldi. Berez betidaino da, ta betikoz dago bere osokoan. Baiñan izatez sorkua duenez, sorkuaren eragitez dago bere osokoan. Ta betidainoko izan afen berez, betidanik dago izatearen galtzorian, betidanik dago erorte agiñan. Sorkuak, ba, uts egingo lukeneko, bereala galduko litzake bere izatean eta, beraz, bere osokoan. Gizanima, ba, osokoa danez, ez da lertuko, ondorio danez, ezerezero, Jainkoak nai ba'lu, itzuliko baizik. Gizanimaren zergunak, bakuna ta ilgaitza dan daneko, betiereko izatea beaesten (exige) du. Baiñan izaterik ez du jatoriz eta berez, sorkuak emana du, sorkuafeñ du, sorkuaren mendean dago. Gizanima, ba, osokoa danez, ez da lertuko. Ondorio danez, ordea, ezerezero itzuliko litzake, Jainkoak alaxe agindu ba'leza. Baiñan ezin du alaxe agindu, Bere Buruaren aitzi yardunen luke-eta.

## VI) Per-stans: Egotean-zear-dagoena

Jatorizko izatea da Jainkoa, Norberaren etorburua da, baiñan ez da sorkua. Betebetea da izatez Jainkoaren zerguna, Bere zergunaren zerguna izatea da-eta. Ez du, ba, izaterik Jainkoak tarteka, tarteko utsunerik ez du izatean zear, Bera dandanean zearo bai-da izate. Bere izatean zear ez du, ta ezin du, ezerezerako tarterik eta etenik ukan, zerguna etengabe ta zearo bai-da izate.

Jainkoak ez du Bere egotean zear lenengo aldirik, ez bigafeñik, etenaldirik ez du-eta. Beraz, ez dago lenengo aldirian zear, ez bigafeñean zear, ez inoizko aldirian zear. Izatez etengabekoa dan ezker, aldirigabekoa da, ta aldirigabekoa dan ezker, etengabekoa da Bere egotean zear. Etenaldirik ez duenez, Bere Oraina ez da etenaldia, ta orainaldian ere ez dago. Ez dago orainaldi bakoitzean zear, Bere Oraina etenaldia ez da-eta. Bere egotea ere, ba, zearo etengabea da. Zearo etengabea ez ba'ledi Bere Oraina, eteniko orainaldian zear legoke. Zearo etengabea ez ba'ledi bere egotea, eteniko egote-aldian zear legoke. Baiñan etengabeko Oraina da, ta etengabeko egotean zearo dago. Zearo dago dagoenean. –tò dè nùn ou méros– (Bere Oraina ez da (Orain-) zatia.

Ez dago izatean zear, berean zear egoteko izateak etenaldiak bear dituen eta. Izatean zear ba'lego, etenaldiz etenaldi legoke, ta etenaldien zear legoke, baiñan izate etenik ez duen ezker, zearo dago izatean. Eteniko aldirian zear ba'lego, zenbagañiak lirake eteniko aldiak eta etenaldiz etenaldiko kopuruan legoke bere izatean zear. Baiñan etenaldiz etenaldiko kopuruan ba'lego, uts-aldiak lirake tarteko eten-aldiak. Baiña Jainkoak ez du utsaldirik, Bere izatean zear ez dagoelako, berez eta berariz betibateko izatean zearo dago-eta.

Asmazu nolabaiteko etenaldia Jainkoagan: Jainkoagan ez da inolazko etenaldirik, etengabeko izatea da-eta. Betitasuna da, betierekoa da, betiere-

ko Oraina da, etenaldi gabeko Oraina da. Orain utsa da zearo. Etenik gabeko izate utsa dan ezkerro, zearo dago izatean, izatean zear ez dago-eta. Zearo dagoen ezkerro Bere izatean, izate utsa da zearo. Egotea utsa utsik dan ezkerro, zearo dago Bere egotean. Zearo dagoen ezkerro Bere egotean, etengabeko ta usbako egotean dago zearo. Orainean-egotez-zearo-dagoena da.

Per-stantia (dià- (s) istemi) da berez eta berariz Jainkoa. Per-stantia utsa da. -Per- auzizkiak «aúfera» edo «aúferakada» gogarazten du. Baiña Jainkoak ez du «aúferarik», ez «aúferakadarik». Jainkoa ez doa izatean zear aúfera, zearo bai-da izate. Ez du Jainkoak izatean zear aúferakadarik, zearo bai-da izate. Izatean aúferarik ba'leza, izate-aldiz izate-aldi izanen litzake. Baiñan ez doa izatealdiz izatealdi aúfera. Aldiak, ba, etenaldiak lirake, etenaldiak zenbagañiak lirake ta Jainkoaren izatea zenbait aldikoa litzake, zenbait aldiko kopurua litzake. Emazu betialdia dala Jainkoa: baiña betialdia ez da berez betitasuna. Betikoa da Jainkoa, ez beti-aldikoa. Per-stantia utsa da Jainkoa, ta -Per-«zearo» egotez dagoena da. Orainean-zear ez dago etenaldiz etenaldi egotez. Ala izatekotan, egote-aldiz egote-aldi legoke Orainean. Baiñan Orainean-zearo-egonik-dagoena da.

Per-sistentia utsa da Jainkoa. Zearo egotez egon ez ezik, ba, eragotez ere zearo dago egon. Egotez bezin eragotez ere Bere zergunari daragoyo Jainkoak. Eragotean zear ez dago. Ofela ba'lego, eragote-aldiz eragote-aldi legoke, ta eten-aldiz eten-aldi legoke. Etenaldiz etenaldi, beriz, ba'lego, etenaldiak zenbagañiak direnez, ainbateko eten-aldietan zear leragoyoke, ainbateko etenaldi kopuruan legoke-eta. Jainkoaren Per-sistit Bere zerguneko eragote etengabe utsa da. Orainean-eragotez-zearo-dagoena da.

Sorkaria dan gizanima, beindanik izatera yauzterakoan, Orain-bateko egotean zearo dago. Zearo, beriz, Jainkoa bezela ez dago, baiña zearo dago, egotealdietan zear ez dago-eta. Bakuna danez gizanimaren zerguna, zatigabeko Osoko bat da. Zatien jarionik ez du, zatirik ez du-eta. Ezin da zatietan lertu, ez zatika usteldu, lertzekotan zatikidez osatua bear da izan-eta. Usteltzekotan, ba, erdikiñetan ainbanatu bear da. Baiñan ez atalik, ez zatirik, ez erdikiñik ez duen ezkerro, ezin da ez lertu, ez usteldu, ez ataletan ainbanatu. Naiko du, ba, gizanimak ere bere artan eragotez yardutea.

Alaz ere, lenengo orainaldia izan du, ezerezetik izatera sorkuaren eragitez etoñi da-eta. Bestegandik izan du izatea, ta lenengo aldian bezela, ufengoetan ere bestegandik jaritxi bear du izatea. Asiera duen ezkerro, aldia du. Berez eta berariz izaterako sorkuaren beaña ukan duen ezkerro, aldi bakoitzean zear egoteko sorkuaren berebateko beaña du. Beraz, izate-aldiz izate-aldi dago bere egotean beñirasi beañean dago-eta. Ez gizanima, ez beste edozelako sorkaria ez dago zearo bere izatean, aldiz aldi dagoen ezkerro, izatealdietan zear dago-eta. Izatealdiz izatealdi sorkuaren beañez ba'dago, egotealdiz egotealdi dago, egotealdietan zear dago. Egotealdietan zear ba'dago, etenaldiz etenaldi dago. Jainkoa dan sorkuak, ba, aldi bakoitzean uka dezayoke Bere sorkuarekiko indaña. Beraz, edozelako sorkaria, beindaniko danez, etenaldiz etenaldi dagoena da, ta betidaniko ez danez, utsaldiz utsaldi dagoena da.

Per-stans da gizanima. -Per- auzizkiak «aúfera» ta «aúferakada» gogarazten du. Gizanima, asialdia duen ezkerro, ufengo aldietan ere «aúfera» doa, ta «aúferakada» du aldi bakoitzean. Betikoa izan añen, beti-aldian da, Jainko sorkuaren ondorio danez, ondorioak batipat beti-aldia du-eta. Beti-

aldia, ba, egote-aldia da, ta egote-aldiz egote-aldi betikoz izatean zear dagoen aŕen, azkenik gabeko kopuruaren aldian dago, ta aldi kopuruan zear dago. «A parte post» betikoa izan aŕen gizanima, oraiñaldietan zear dago, ta betialdian zear dagoen aŕen, ondorio danez, ez dago zearo bere egonean. Beti-aldikoa da, baiñan ez da betikoa, ez betierekoa, -aion- «aevus» ez bai-da betikoa, ez betierekoa, beti-aldikoa baizen. Beraz, ez da gizanima izate utsa, utsa bai da bere izatea, izatea besteren aukeran emana du-eta. Bere izatea utsa dan ezker, baita bere egotea ere utsa da. Bere izatealdia, beraz, obe deritza utsaldia, ta sorkuak bakoitzeko izatealdian utsalditik jasoten du. -Per-, ba, utsalditik izatealdira yautzika dagoen sorkari alpeŕa da, berez izateko alper utsa da-eta. Obe deritza, ba, gizanima utsaldietan zear dagoela egon, berez beti utserakoan dago-eta. Utsaldietan zear, beŕiz, izatealdietara yautzi eragiten ba'zayo izateko, bere jatofizko egoera ezereza dalako da. Berez, ba, ezerezaldietan zear dago egon. Izatealdia, ba, ezerezaren etenaldia da.

«Auŕera» doa bere egotean zear, baiñan auŕerakadarik ere ez du egiten egitan, betialdian izateko sorkari alpeŕa dan ezker, Jainko sorkuak aldikoz aldiko ezerezaldiak etetzen dizkio, ezerezaldiak izatealdi biurtzen dizkio, ta izatealdietan zear dago egon.

Per-sistens da gizanima. Egotean zear bezela, eragotean zear ere berdin da. Izateko berez eta berariz uts alpeŕa dan ezker, egotez bezin eragotez ere alper utsa da izateko. Alper utsa ba'da, beŕiz, izateko, zearo utsa da izateko. Bakuna danez gizanima, ta ez danez materiazkoa, bere zergunez nola-bait eta ala-bait ba-da izan eta ba-dago egon. Baiña Jainko sorkurik gabe izateko alper utsa dan ezketiño, nolare-bait eta alare-bait ez da izate, ta ez dago egon. Izateko diteken utsa ba'da, ba, ta izangai utsa ba'da, ez da alabeaŕez eta naitanayez. Izangai, ba, izan, eta alabeaŕez eta naitanayez izan, Jainkoarekikoa bakaŕik da. Jainkoari bakaŕik dagoka, alizatetik eta izangai dalakotik alabeaŕezko ta naitaezko izatera lojikazko yautzia egitea. Izateko naitaezko ta alabeaŕezkoa ez da gizanima, izangai utsa da izateko. Sorkurik, ba, izatera yautzi egiteko ez ba'du, bere diteken-beti-aldia, beti-aldiko-utsa da. Bere -Per-sistens- beti-aldikoa izan beaŕean, sorkurik gabe beti-aldiko utsa da. Beti-aldiko-utsa, beŕiz, uts ezereza edo ezereza utsa danez, beti-aldietan-zear dagoen bezela, utsaren ezerezaldietan zear dago edo ezerezaren utsaldietan zear dago. Bere eragotean zear bezela, bere utsaldietan zear eta ezerezaldietan zear dagoena da.

-Per- auŕizkiak «igaztaldia» gogarazten du. Igazi doazi sorkariak oro. Auŕera doazi, aldian zear doazi. Igazi doazi izakariak ezerezetik ezerezera. Ezerezetik ezerezera irixta-aldia da sorkaria. Nun-dik nun-era nun-bait ta noiz-tik noiz-era noiz-bait doazi, baiña Jainkoari begira doazi irixtaka. Bultzian goazenean, soroko argindaŕaren zutabea deritzagu doala abiadan. Baiña zutabea geldi dago egotez, bere tokian dago eragotez, gu-geu gera abiadan goazenak. Aloŕeko zutabea bezela, guk-geuk asmatzen degu ba-doala abiadan zopaŕeneko Jainkoa. Baiña zutabea geldi dago egonean. Sorkaria da bultzian igazi doana ta sorkaria da berez eta berariz auŕera, igazgaŕia dalako, doana. Jainkoa zearo geldi dago Berean. Ez dago, ofatio, zugaitza bezela, tokian, tokirik ez du-eta; ez dago geldi noizkoan, noizkorik ez du-eta; Jainkoa Nunc-Per-stans «Oraiñean-zearo-dagoelarik», berebat da labuŕago esanda, Nunc-stans «Orain-dagoena» da.

Berean dago egon Jainkoa, ez dago Berean zear, zearo baizik. Ez doa

aufeko tokira, tokirik ez duelako; ez doa aufeko tokira, igikunik ez duela-ko; ez doa igikunaren aufeko aldira, aldirik ez duelako. Ez doa mailaz maila Jainkoa, ez toki mailatan aufera, ez mailatan gora, ez mailatan beera, ez aldi mailatan aufera, betiereko maila bakarean dago-eta. Betiereko eragotean zearo dago Jainkoa ta betiko Orainean zearo dago egon. Sorkaria da, aldirako danez, aufera doana, igazi doana, baiña Jainko betizanaren begitan utsaren etenaldi bat besterik ez dan ezkerro, bein artan dagoeneko, bein artan suntzitzen da.

## VII) Super-stans: Gaiñean-dagoena

Jainkoa sorkarien gaiñean dago. Berez ez dago gaiñean, edonun dago-eta. Tokirik, ba, ez du Jainkoak. Baiña Jainkoa izakarien sorku dan ezke-ro, sorkari guzien kakoa da. Beraz, sorkarien lenengo kakoa da, ta lenengo beste guziak baiño gorengoa dalarik, Jainkoa sorkarien gorengo kakoa da. Izakirik goenengoa da Jainkoa, sorkua baiño gorago ondoriorik ez dago-eta. Ondoriorik ere berez ez dago beean edo beerago, edo sorkua baiño beerago, ofen azpian eta mendean ba'dago ere.

Nola-bait eta ala-bait, ordea, gizadimenak asmatzen duenez, sorkari guzien gaiñean dago, beste inoren-gandik edo beste ezer-gatik ez dago dindilizka-eta. Izakarien izakaria da, baiña sorkarien sorkaria ez da. Izakaririk goenengoa da, baiñan ez da sorkaria. Izakirik bikaiñena da, ta amaikaiña, baiñan ezin da sorkaririk bikaiñena izan, sorkurik ez du-eta. Izakari ta sorkari guzien sorburu danez, danen buru da, danen gaiñekoa da, danen gain dago. Gaiñekoa ez ezen, goragokoa da. Goragokoa ez ezen, gorengoa da. Gorengoa danez, goenena ta gurenena da. Gurenena danez, lenengoa da, -super- izatea -prae- izatea da, -uper- izatea -prò- izatea da-eta. Ofela, -super-edo -supra- baiño areago dan -superior- da, ta areago dan -supremus- da. Berdin da, ba, gorengo izan, buru izan, nagusi izan, aufeko izan, lenen izan. Izakarien ezezkanan asmatu ezkerro, Jainkoa dan lenengo ta aufenena, orain -super- gorengo ta goenena asmatzen da. Sorkarien ezezkanan asmatu ezkerro, Jainkoa dan lenengo sorkua kakorik gorengo ta goenena asmatzen da. Gorengo ta goenena, beñiz, Berak sorkurik ez duelako da, ta sorkari oro goenengo sorkutik ufengo -beti da ufengo ondorioa- irioten direlako da. Jainkoa nolare-bait eta alare-bait Bere buruaren kakoa da, baiñan ez sorkua dalako, Sorburua dalako baizen. Berbera ezik, ez du besterik, ez bestelangorik. Edozer izakari, edozer sorkari gorengo ta goenengo kakotik, sorkutik eta sorburutik bezela, isegiten dire, isegi baiño lenago ta gorago kakoa bear da-eta. Gorago ez ezik, gorenena eta lenen kakoa bear da, ba, lenengo sorkua izatekotan.

Izakirik gurenena dan ezkerro Jainkoa, Arengandik isegiten dire sorkari oro. Izakarien gurenena dan ezkerro, Arengandik isegiten dire izakari oro. Izakari-guren da, izaki-guren da, aruntzagokorik ez da-eta. Sorkarien ego-tea zintzilika dagoenez, tantaka, ituxura bezela, etetzen da, ta eten-aldi ori utsune-aldia dan ezkerro, utsa utserakoan utsik utzita dago. Jaustekotan, izate mailatik beera erortzen da, izate alditik ezerezero, izate alditik uts-aldiaren zulora erortzen da. Ta jaustekotan, utsezko izatera ozta ozta jasoten da.

Super-stans goenean dagoen izakaria da. Goenengoa lenengoa da, Jainkoa izakari ta sorkari guzien ezezkanan lenengoa danez, beste izakari ta

sorkari guziak ondorio dire. Ondorioa beti sorkuaren uñengo dan ezker, beriz, goitik beerakoan isegita datozen izakariak uñengo dire, baiñan ez dire uñengo sorkariak, Jainkoa ez dalako sorkaria. Sorkariak, baiña, beste sorkarien eñezkadako sorku izan ditezke, baiñan uñengo sorkuak dire, lenengo sorkua inñolaz ere ezin ditezke izan-eta. Bigañen eta uñengo sorkuak dire. Bata besteagandik isegita dagozen ezker, sorkua dan uñengo izakariak gorakogo sorkuaren eragitea du bere uñengo ondorioa sortzeko. Azkenik, ba, ondorioz ondorio edo sorkuz sorku eñezkadako sorkarien barna igoten ba'da, lenengo sorkuraino iritxiko da. Beraz, lenengo sorkua dan Jainkoa azkenengo sorkua da, beetik gorakoan igoten ba'da. Beraz, lenengo sorkua ta azkenengo sorkua berdin dire ta batbera dire. Edo batbera da lenengo sorkua ta azkenengo sorkua. Ofela, beriz, alde batetik edo goitik beerakoan Alfa dana, beetik gorakoan Omega da. Batbera da, ba, oñezker, Alfa ta Omega, edo Aitzindaria ta Azkendaria.

Goitik beerakoan, lenengo kakotik isegita datozen sorkariak, ondorioak direnez, goikoari ta gorengoari lotuta dagozen bezela, Jainkoagana itzultzen direnean, Jainkoa sorkarien elburua da. Orixe da Sorkariak bere artan daroan «religatio», «bein-eta-beriz» Jainkoari loturik dago-eta. Jainkoa sorkua danez, beñiro bigañenez ere Jainkoari loturik dago sorkaria. Ta goitik beerakoan Argandik jeixten ba'da, beetik gorakoan Argana joaterakoan bere elburura igoten da sorkaria. Bifitan lotua dago, ba, sorkaria. Edozer sorkari, ba, bidelari da, bide batetik datoñen bezela, bide batetik doa. Bifitako bidea du ta bide batbera alegia bere beerakoan eta gorakoan. Bifitako bidea duenez, bifitan lotua dago. Ofela, super-stans eta prae-stans berdin dire, ta -super- ta -prae- berdin da.

Gorengo kakoak eusten dio sorkariari, onek bere artan iraun dezan, dindilizka. Aldi bakoitzean, zintzilikakoa etenda, eror agiñan dagoelako sorkaria, etengabeko eñezkadan eusten dio Jainkoak. Sorkariaren elburua aldioro da, izatez betierekoa ez dalako, ezereza. Alako batean sorkari oro, isegita dagozen kakoak bertan beera yareginda, ezerezero jalkiko dire. Jainkoak, ba, sorkariaren eiteari dagokanez, uskoña ta galkoña bai da, eusten dio. Sorkari oro erorita ere, Jainkoa dan kakoa goenean eta gaiñean betiraun danez, Bera bakañik geratzen da Super-stes. Gaiñean egonik dagoena ez ezik, gaiñez ere bakañik geratzen dan Izakia da. Beraz, Super-stans berebateko Super-stes da. Izakarietatik bat ere ez da Super-stes bere izatean. Bat suntzitzen danean bestea oraindik gaiñez geratuko da zutik, baiñan aldirako da gaiñezkakoa, sorkari oro noizbait, noizkoak direlako, gainbeera doazi-eta. Super-nihil utsa da, gaiñezkako ezereza da.

Super-stantia utsa da Jainkoa, berez eta berariz isegibako kakorik goe-nena ta gurenena Bera da-eta. Naiko du Jainkoak Beragan eragotea, kako lokaeziña da-eta. Super-sistens da berez eta berariz Jainkoa. Super-sistentia utsa da Jainkoa, eragotez Berean bakañik dago-eta. Naiko du Bereari eragotez datxikola izatea. Alakorik ez da, ordea, sorkaria, Besteari datxikola dagoelako, kakotik aldirako isegita dagoen ezker, ezerezerakoan dago-eta.

### VIII) Sub-stans: Azpian dagoena

Sub-stans azpian zutik dagoena da, azpian egonik dagoena da. Berez Jainkoa ez dago azpian, ez goyan. Tokirik ez du Jainkoak. Tokian tokiko

dana, baita aldian aldiko ere ba-da. Jainkoa, beñiz, ez da tokian tokiko, ez aldian aldiko. Edonun dago ta edonoiz da. Im-mensus, neufibakoa da.

Jainkoaren zerguna Bere izatearen azpian dagoelakoan asmatzen da, baiña berez eta berariz izate utsa dan ezkerro, ez du azpikorik ezer. Jainkoa, izakia izaki, izatondoaren (substantia) antzera iduritzen degu. Izatondoa da, noski, ta oñezkeroz, agerkari (fenómeno) pīloaren ostean eta azpian irautondoa lezakelakoan asmatzen degu. Alere, agerkaririk ez du Jainkoaren izatondoak, dena-den-dena zerguna bai-da. Beraz, Sub-stantia-rik bikaiñena, gotofena ta osoena da, irautondorik berealdikoena da, irautondorik berebizikoena da. Irautondo ori, beñiz, izate utsa danez, betitasuna da berez eta berariz.

Sub-stans aipatzean, izakiaren oiñafi lokaeziña asmatzen degu, euskafi iraunkoña ta betibat iragoz dagoena. Jainkoaren zerguna, dena den dena, izate utsa izanik, oiñafi iraunkoña ta utseziña da. Orain da beti aldirik gabeko iragoz irauten duena. Beraz, Sub-stans da Jainkoa, betibat da, beti berbera da, aldaketarik ez du, ez du aldiz aldizkorik, ez du aldiaren eñezkadarik. Sub-stantia utsa da, ba, Jainkoa, ta Irautondo utsa.

Sub-sistens da Jainkoa, Sub-stans ez ezik. Jainkoa, ba, «substantia individua» da, Bere hypostasea bakoitzalakoa da. Berez eta berariz izate utsa dan ezkerro, beste inor ere ez da, Jainkoa ezik, ain bakoitzalakoa. Ta inor ere ez ba'da ain bakoitzalakoa, Sub-sistentia'rik berebizikoena ta berealdikoena da, hypostasea'rik banakoena ta bakoyena da. Sub-stantia edo Izatondoa, ba, Jainkoarena, besterik ezertxo ere erantsigabe, Sub-stantia'rik bakoitzalakoa dalako, berezko Sub-sistentia da, berezko Nortasuna da. Sub-stantia edo Izatondoa bere artan dan dandanean subsistens edo Norda. Beraz, osokorik osokoena da Jainkoa, osobeterik osobeteena da, osobat bikaiñena ta biribiñena da. Biribila, ba, bir-bil da, bir-bildua da, beñiz bildua da, bi aldiz bildua da, biko-bildua da. Lenengo aldiz Sub-stantia edo Izatondoa dalako, ta bigařen aldiz, Sub-sistentia danez, bir-bildua da. Beste edozer sorkari baiño biko-aiña bildua da. Sub-stantia danez, bildua da, ta Sub-sistentia danez, birbildua da. Bata baiño bigařena bilduagoa da, bata bil ba'da, bigařena bil-bil da. Azkenik, ba, eta osoenik bere artan biltzen dan eta bategiten dan Izakia da. Yardukizun ori izkera izkuntzez egiña da. Meta-izkuntzez, ba, ta Lojikarenean ez da ez biribila, ez birbildua, ez bi aldiz bildua, ez biko-bildua. Jainkoa, ba, ez Bere zergunean, ez Bere izatean, ez da borobila, ez biribila, ez bildua, ta gutxiagorik biko-bildua ta biko-aiña. Ez da, ba, bikuna, bakuna baizen. Bikuna ba'ledi, ba, amarkuna ere berdin litzake. Baiña Jainkoa zearo bakuna da. Erdikiñik ez du, atalkiñik ez du, atalkiderik ez du, osakiderik ez du. Ezta asmamenez ere ezin diteke bitan bereizi, gogamenez ere ta gogayerez ere Bere zerguna dena-den-dena izate utsa da-eta.

Sorkaria aldiaren eñezkadan da Sub-stantia edo Sub-stans. Bere artan irauten du, ta aldiz aldi iraun afen, Izatondoa da. Irautondoa duelako da Izatondoa. Baiña berezko izatez utsa dalako, eta ez dalako izate utsa, izateko sorkuaren beařa du, ta aldiz da ta aldiz ez da. Lenengo aldian, ba, sorkuaren eragiñez baldin ba'da, bigařenean ere sorkuaren beařez bear du izan izate. Bi aldi oyen tartean utsunea dago, izatearen utsa dago, utsunez josita dago izate eñezkada. Izatondoa da aldiz aldi irauten duelako, baiñan sorkaria bestetarik doan ezkerro, aldioro sorkuak azpitik eutsita dago, eta aldioro ezerezaren agiñian dago. Izatondoa danez, bere artan dago ta irau-

ten du. Baiñan ez du irauten Jainkoak bezela, bakuna ez da-eta. Zatizko izakaria edo sorkaria dan ezkeru, beti bere zatietan lertzeko zorian dago. Izatondoa da, baiña sorkaria danez, bere artan irauteko indarrik ez duen ezkeru, bestek eutsi bear dio izatean aldiz aldi. Izatondoa, ba, izate-aldiz izate-aldi da izatondoa, ta aldiz aldi izateko uts-aldiz uts-aldi ez-izateko agiñian dagoen ezkeru, ezerezaren utsean erortzeko agiñian dago. Ta izatondoa izatekotan, sorkuak eutsi-aldiz eutsi-aldi eusten dio uts-aldietan. Bestetarik dalako, izate érezkada ta utsune érezkada berdin da, izate-aldi bakoitza berez uts-aldia da-eta. Izatez beti ditekena da ta izangai da, ta izangairik berez eta berariz, Jainkoa ezik, egitan ez dan ezkeru, egitan ez da.

Onela da, ba, sorkariari buruz:

- tò dumatón éinai –quod possibile est esse–
- ditekena ba'da izatea–
- endejómenon éinai –contingit esse–
- gerta diteke izatea, gertakizun da izatea–

Baiñan:

- ouk anagkaîon éinai –non necessarium est esse–
- ez da alabeaérez izatea, ez da alabeaérezko ta naitaezko izatea–

Zera, ba:

- de facto ad posse valet illatio–
- benetako izatetik asma diteke al-izatea–

Bestela, ordea:

- de posse ad factum non valet illatio–
- al-izatetik benetako izatera ez da auzu aterakizuna–

Benetan, ba, eta yardutez dan edozer berebat izangai dala edo berez ditekena dala, Lojikabidean auzu da asmatzea. Baiñan alderantziz ez da auzu Lojikabidean asmatzerik, ots, «izangai ta berez diteken edozer berebat benetan eta yardutez danik».

Jainkoari buruz, ofatio, ez da ofelakorik: Jainkoa, ba, «alabeaérezko ta naitaezko izakia izangai edo ditekena ba'da, ba-da izatez ere». Beraz, Jainkoari buruz al-izatetik benetako izatera zuzen asmatzen da yautzia. Emazu, ba, alabeaérezko ta naitanayezko izakia izangai izan aŕen, benetan ez dala. Ofela izatera, beingoz izaten asiko litzake edo ortarako gai-izango litzake. Baiña beingoz izaten as ba'ledi, ez litzake alabeaérezko ta ezinbestezkoa izango, alabeaérezko ta ezinbestezko izakia edo ez da izangai (ditekenik ezer), edo, izangai ta ditekenik ezer ba'ledi, alabeaérez eta naitaezik izan bear du.

Gogorazu, ba, alde batetik «alabeaérezko ta naitaezko izakia» ta bestetik «izangaya» edo «ditekena»: bi gogayera oyek ez dire muturkariak. Ez dago burukaterik asmatze ontan: «zerbait berez izatea, ba-ditekela edo zerbait berez izan ditekela». Alabeaérezko izakia, ofezkeroz, izangaya da edo ditekenik zerbait da. Gogamenez asma diteke, ba, onelako esakun au: «berez eta berariz dan izakia». Beraz, –quod necessarium est esse, est possibile»; edota «ens a se est possibile», «ergo existit». Muturkari datozen esakunak onenbestekoak dire, ba: –contingit esse – gertagarri da izatea ta – ergo necesse est esse – beraz, alabeaérez da izate, alabeaérez izan bear du».

Irautondoa izan aŕen, ofatio, sorkariak bere izatearen sorkua du. Izatez

utsa dalako, ta ez dalako izate utsa, izateko sorkuaren bea da. Irautondoa edo izatondoa dalako, ez, baiñan izakia dalako ez da bere izatearen jabe, ez bestetarik yare. Lenengo aldian sorkuagandik yare izan ez ba da izateko, ufengoetan ere ez da yare. Izatondoaren oiñaria berbera da, baiñan izatearen oiñaria Jainkoa da. Izatearen azpiko oiñaria, Jainkoa sorku izan ba zayo, Jainkoa du edozein alditan. Beraz, beti izate-aldiz izate-aldi sorkuaren mende dago, sorkuaren oiñarian etziña dago. Sorkaria, izatondoa dalako, irautondoa da, baiñan izatez bestek eutsita dago, berez ezerezera doalako. Jainkoa da eustondo, sorkariak berezko eustondorik izateko ez du-eta. Azpiko oiñean zutik ba dago, Jainkoa da oiñondoa, sorkariaren sorkua da-eta.

Azpiko oiñean ezin diteke delako Ab-grund edo Leizerik asmatu. Edo ta ezin diteke delako «abgründiger Grund» edo «Leize-oiñafirik» asmatu. Gizadimenak bere legez ez du oiñondoaz oiñondo azkenik gabeko zulo edo leizerik onartzen. Gorakoan sorkuz sorku azkeneko kakoa ta lenengo sorkua dan bezela Jainkoa, beerakoan oiñondoaz oiñondo azkeneko oiñaria alabea ez eta ezinbestez onartzen du. Gorakoan Super-stans eta goenengo kakoa ta sorkua dan Prae-stans batagiten dituen bezela, beerakoan Sub-stans eta azkeneko oiñaria dan eta batera azkenengo sorkua dan Prae-stans berbera batagiten ditu. Goikoena aurrekoena da, ta beekoena aurrekoena da. Goitik asita goikoena ta aurrekoena lenengo da. Beetik asita beekoena ta lenengoa aurrekoena da. Bi-biyak dire berebateko Aurrekoena edo Prae-stans.

Sub-sistens da sorkaria. Sub-sistentia da sorkaria, sorkutik izan arien. Eragotez dago izatondoa, bere izateari daragoyoa ta irautondoa da. Baiña berez eta berariz ere ez du irautondorik, izatez beti ezerezekoan dagoe-lako. Bein Jainkoak izate-aldiz izate-aldi eusten dion ezezkanan, ofela bai-zen ez dago eragotez bere artan. Jainkoa bakañik da berez eta berariz, Bere irautondoa ere Orain-bat-bakañekoa da. Nunc-Sub-stans eta Nunc-Sub-sistens, Orain-bat-bakañeko-irautea da. Nunc-stans da.

## IX) Circum-stans: Inguruan-dagoena

Jainkoa Bere zergunaren mamian oso osorik da izate. Berez inguru-rik, ez ingurukorik ez du Jainkoak. Ingurua, ba, tokia da, ta tokia katego-ria edo edua da. Jainkoak, baiña, ez du sorkariaren kategoriarik. Meta-kategoria da. Jainkoa ez da inguru-kategoria, ez da inguru-edua, sorkaria ez dalako. Izakaria da, baiñan ez da sorkaria. Berbera da Bere izatearen oiñaria, etorburu ta sorburu, baiñan ez da sorku. Jatofizko izakaria da. Yardutez eta asmamenez Bere zerguna dana-dan-dana izatea da, ta danda-nean dana izatea da. Bere artan bateriko izate osoa da, bateriko Osoko bat da, Osobat da. Osobat baiño Orobatza dire sorkariak, eta Orobatza sor-karien piloa ta meta besterik ez da. Jainkoa ez da izate pilorik, ez da izaki kopururik, ez da zenbatako pilorik, ez da izakarien multzorik, ez izakarit-zaren batagite edo batasunik.

Sorkaria, nungo ta noizko danez, ondorengoetan mugatzen eta kokatzen da. Alabea ez mugatzen eta kokatzen da, ta eduan eduko da, ta kate-goria da. Berez du sorkariak ingurukoa. Berez du -Circum- edo -Peri- edo Ingurua. Beraz, alboa du, aldea du, afeia du, atzea du ta aitzin-giblean

ingurunea du. Edozein albotik, edozein aldetik, edozein aúfe-atzetik tokikoa dan ezker, berezko tokikotasuna da. Ezin da egon alakotxe egoerean baizen. Sorkariaren ondorengorik ezinbestekoena Munduangoa da, ta ortxe dago egon bere bururik ez-dakiela edo ba-dakiela. Edozein albotik, edozein aldetik, edozein aúfe-atzetik aldikoa dan ezker, sorkariak aldi bat galduaz beste aldi batera yautzi egiten du, ta aldikotasuna da. Ta ezin da egon alakotxe egoerean baizen. Bere ondorengorik ezinbestekoena da aldikotasuna. Baiña bere munduangoa ta bere aldikotasuna aldiz aldi galtear dalarik, utsaldiz utsaldi beera beaúean dago egon. Sorkaria, ba, uskeria da, utsala da, ta berez dan ezker alakotxea, edozein aldetara ta edozein albotara eror diteke. Bere alde aldean eta aldiz aldian euskariaren beaúa du, eror ez dedin, gal ez dedin, ezerezero itzul ez dedin. Gertagaúri zayo onelako edo alako tokia, gertagaúri zayo onelako edo alako aldia, gertagaúri zayo onelako edo alako ondorengo, baiñan ondorengorik gabe ezin da izan, ez egon, ez eragon. Alaz ere, berez uskoúa danez ondorengo, ta gertagaúria edo gertakizun utsa danez, alako batean uts egin dezake, gertagaúria edo gertakizun dan utsak berez eustekorik ez du-eta. Ezereza da sorkarien yomuga, elbururik berebizikoena da ezereza, ta izatekotan tokiaren utsunean dago egon, aldiaren utsunean dago isegita. Tokiko ta aldiko da sorkaria, tokian eta aldian izan bear du, ta tokia ta aldia utsezkoa dan ezker, ingurumarian esiaren beaúa du bere izateari ta egoteari eusteko. Etxe batek abe txaúa ba' du, eustolak bear ditu ingurukoan. Abe txaúekoa da sortzez sorkaria, beera beaúean dago egon-eta. Ba-daneko, aldiz aldi ta ozta ozta da. Ba-daneko tokian tokiko da, ta ezerezerakoan, tokia galtzen du.

Atsa da Jainkoa. Atsak ez du ingururik, ez mugarik, ez tokirik, ez aldirik. Jainkoa, Atsa danez, ez da nundaúa, ez noiztaúa. Ondorengorik, ba, ez du, ta ezin da nun-baiten edo noiz-baiten kokatu, edo mugatu. Alabeaúez iñun kokatzerik ez du, eduan eduko ez da-eta. Berez ez du Jainkoak ingururorik, berez ez du -Circum- edo -Peri- edo ingururik. Beraz, ez du alborik, ez alderik, ez aúerik, ez atzerik, ez aitzin-gibelarik. Edozein albotik, edozein aldetik, edozein aúfe-atzetik, tokikoa ez dan ezker, berezko tokimugarik ez du. Ezin da tokimugarik gabe baizen izan eta iragoz egon. Ezinbestez ukatzen du Munduangoa ta Nuntokia. Ez aldetik, ez albotik, ez aúetik, ez atzetik aldikoa ez dan ezker, ez du aldi galterik, aldikotasuna ez da-eta. Bere zeiñezkorik ezinbestekoena betitasuna da, Bere dan-danean izate mamaúna da-eta.

Jainkoak ez du ingurumarian ezer, sorkarien érezkada Aren aúean, nola-bait bat-batetan ba-daneko ere, ez da-eta. Ba-daneko, ba, edozer sorkari, ez-daneko da. Aldi oro Aldigabeko Oraiñaren aúean oraiñ-aldi bat bakaúa bezela dire. Berdin zayo aldi bat eta azkenik gabeko aldi érezkada, Jainkoa berezko izatea dan bezela, beste danik dana ezereza da-eta. Asma ezazu obo bat, eta oboaren puntu guzietan asma itzazu sorkariak, aldiak, gizaldiak, belaunaldiak. Erdokia antzo zaye Jainkoa, ta sorkari oro Aren inguruan dagoz. Aldirako dagoz, oúatio, aldian aldiko igazi doazi-eta. Berez ez doazi Jainkoaren inguruan ere, bakoitza bestearen uúatsean igazten da-eta. Oboaren erdokia dan Jainkoa Aldigabeko Oraiña da, ta zifingola bazteúeko sorkariak oraiñ-aldiak dire, ta bat irautez dagoen bezela, bestek aldiz aldi ta tokiz toki iragaiten dire. Sorkariak ez dire batera, érezkadan dire, eten-aldiak dire ta banan banan inguruko dantzan bakoitzak aúekoaren ordea artzen du.

Jainkoak, alere, gurpilaren erdokia dalarik, gurpileko sorkariak érezkadan igazten direnean, nola-bait eta ala-bait bat-batetan besarkatzen ditu. Baiña berez eta berariz, sorkariak izan baiño auřetik, Jainkoak Bere adimenean eta Bere naimenean ditu denak, izangai izan, izango izan, ditezkenak izan, direkenak izan. Berez eta berariz berdín ditu noizbait izanen direnak, izango lirakenak eta betiko izangai geratzen direnak. Adimenez ezagutzen ditu banan banan eta naimenez izendatzen ditu noizbait izanen direnak. Izanen direnek, ordea, ez dute Jainkoaren adimenik aldatzen, ez ikutzen. Bere zergunean bizirik ditu, sorkariak noizbait izan, ez izan. Izangoak izangayak baiño areago ez dio Jainkoari ikutzen. Izango edota noizbait izanen dan sorkaria Jainko adimenaren eta naimenaren «bukamuga» utsa baiño besterik ez da. Jainkoaren adimenari ta naimenari atetiko bukamuga utsa zayo sorkaria. Izangai izan, izango edo sorkari izan, Jainkoaren adimeneko ta naimeneko bizitza oso osoa da, ta Bere artan oso osorik izateko ez du izangoaren edo sorkariaren beařik. Beraz, sorkariak oboaren érezkadan izan edo ez izan, Berbera da Jainkoa, ta ez du ingururik. Guk-geuk asmatzen ditugu Jainkoaren ingurumarian zifingola mugako sorkariak igazi igazten direlarik.

Jainkoa ez da Circum-stantia (peri- (s)systemi). Circum-stantia (Umstand) sorkariak dire izatekotan. Jainkoari begira, ba, ez dire Circum-stantia, Jainkoak ingurukorik ez du-eta. Sorkaria sorkariari begira da Circum-stantia, bataren auřean, atzean, alboan, aitzin-gibelean bestea dago-eta. Bata baiño lenago, geroago, auřerago, atzerago, aitzin-aldian, azkenaldian bestea dago-eta.

Ez da Jainkoa Circum-sistentia ere. Beragan bakařik eta Bere zergunean bakařik -sistit- edota iragoz iragoten du. Baiñan ez du inguruko -sistentia'rik- Sorkariak dire tokian tokiko ta aldian aldiko direnak, eta bata bestearen auřean eta atzean, lenagó ta ufengo, aldirako iragoz dagozenak. Jainkoari begira, ba, izatean jařaitzeko leřenak egin eta iñalak egin ařen, ez lirakelakoan dire.

Alaz ere, «(der?) (das?) Umgreifende» deritza Jainkoa. Ez da Emengoa edo Orkoa edo Angoa, baiñan Arur\*zagokoa da. Emengo izakari ta sorkariak oro baiño aruntzago dago, orko izakari ta sorkariak oro baiño aruntzago dago, ango izakari ta sorkariak oro baiño aruntzago dago. Sorkari Orobatzaren bestaldean dago, emendikaldeko izakari ta sorkari oro baiño mugaz aruntzagoko aldean dago. Ez da izakari ta sorkarien mugautekoa. Ez da izakari ta sorkarien bebařukoa. Oyen guzien mugazgaindikoa da. Goiko, beeko, alde ta alboetako mugazgaindikoa da. Oyek baiño mugaz aruntzagoa danez, egitazko EX-stans da, ta batetan esanda, Superstans, Ad-stans, Sub-stans, Circum-stans da, edo UM-greifende da edo «Gaiñerontzekoa» da.

## X) Nunc-stans: Orain-egonik-dagoena

Goragokoetan ikusi danez, -(H)egon- ez da aintzat eman aditzaren ja-tořizko adiera gordiñean. Ez da berdín Izan eta (H)egon. Ez litzayoke, beraz, egoki eritxiko Jainkoari egonik dagoela. Egon kategoria bat da, edu bat da, ta materia da egote gordiñean dagoena. Jainkoak ez du kategoriarik, kategorietakoa baiño bestelango izakia da. Alaz ere, Nunc-stans

«Orain-egonik-dagoena» esakunak ba-du egokitasunik Jainkoari erixteko. (H) egon aditzak, ba, zerbaiten irautea adirazten du, ta izatearen jañagoa da, izate iraunkor eta etengabea. Ta Jainkoa da izaterik iraunkofena ta ete-neziñena.

Beretarik doan izakia da Jainkoa. Beretarik da Jainkoa, ez bestetarik. Sorkurik ez duen ezkerro, berez da Izaki (On, Ens, Siendo, Etant, Seiend). Berez da EX-stans, sorkutik-at dago, ta berez dago betidanik izakarietatik eta sorkarietatik yare. Asmamenez ere ezin zayo beste izakarietako mendetasunik asmatu. Jainkoaren EX-stans egitan eta yardutez EX-ens da. Berez eta berariz Izate utsa izanik, betidanik betidaiño yare ta bere artan asmatzen dan izakia da.

Bestetarik doan izakia da sorkaria. Bestetarik doan ezkerro, sorkua du, ta sorkua duen ezkerro, berez ez da izate, berez ez da izaki, bestez baizik. Berez eta berariz ez da EX-stans, ta ondorio danez, noizbait asi da izaten, noizbait irten da sorkuaren altzotik. Ez da, ba, berez eta berariz EX-ens, ta izatera yautzi egiteko sorkuaren beña duenez, EX-iens da. Sorkutik izatealdi bakoitzean izatera «jarioan irtetzen» asmatzen da, utsa bai da berezko izatea. Beti da «Orain-aldian-danik-dana».

Ex-stantia utsa da Jainkoa, edozelako sorkutik zearo yare dagoelako berez eta berariz. Naiko du, ba, beraz, berez eta berariz dalako, Bere izateari eragotea. Berezko ta berarizko izateari daragoyo, ta Bere Ex-sistentia utsa EX-stantia utsa da. Ta betidanik betidaneño EX-stans dan ezkerro, egitan eta yardutez Nunc-Ens da, «Orain-danik-dana». Ez, ofatio, «Oraindanik-dana».

Ex-stantia da sorkaria, sorkutik yare dagoelako. Baiña berez eta berariz ez dan ezkerro, ta sorkutik irten dan ezkerro, bere izateari eragotean izatea berez eta berariz utsa izanik, bere sorkuari daragoyo, ez bere izateari. Bere Ex-sistentia, ba, sorkuari mendeko zayo. Bere Ex-stans, bai bere Ex-sistens, sorkutik irtenda bere artan dagoenean, Ex-ens da. Baiñan EX-ens, sorkuari daragoyolarik, uneoro egitan eta yardutez EX-iens dan ezkerro, beti da egitan yardutez Nunc-Ex-iens: Orain-aldian-irtetzen-ari-dana. Beraz, beti da «Oraindanik-dana». Ez, ofatio, «Orain-danik-dana».

PRAE-stans da Jainkoa. Añean dagoena da. Berez ez dago Jainkoa, ez añaeko aldean, ez añaeko aldi. Baiña sorkari guzien sorkua danez, beste izakari guziak baiño lenago da, ta berez eta berariz danez izate, Nunc-Prae-stans da. Sorkari guziak, ba, berez izateko alpeñak direnez, lenengo sorkuaren ondorio dire, ta lenengo sorkuaren uñengo dire. Baiña Praestes edo Lenago dagoenari Bere izate iraunkofak iraun erazten dio zutik. Izatearen irautez da, ba, Prae-stans dan Jainkoa. Ofezkerroz, agi da, oiñondo eta oiñañiz Prae-Ens dala, «Añean-dana». Prae-Ens, ordea, betidanik ta betidaiño da, berez eta berariz dalako Jainkoa. Beraz, Prae-Ens betidanik eta betidaiño ba'da, Nunc-Ens da: Orain-danik-dana. Ez, ofatio, Oraindanik-dana.

Edozer sorkari, ordea, bere izatea sorkuaren mendeko duen ezkerro, izatean ekitaldia du, asialdia du, orain-aldia du. Beraz, sorkaria Prae-Ens ez, baña, Pro-d-iens da, «Orain-aldiz-irtetzen-ari-dana». Nunc-Ens izan afen, «Orain-aldiz-danik-dana» da, «Oraindanik-dana». Ez, ofatio, «Oraindanik-dana».

IN-stans da Jainkoa. Berez eta berariz izate utsa dan ezkerro, Bere artan uts utsik du irozokia izateko. Izate utsa danez, izate betea da, izate osobe-

tea da, ta Bere baitan beste irozokiaren beafik ez du. Sorkurik ez duenez Jainkoak, ta Norbera izatearen sorburu ta etorburu danez, besterenetik yare dago. Bere zerguna da berezko ta berarizko irozokia, ta betidanikoa ta betidaiñokoa danez, IN-stans egitan eta yardutez betidanikoa ta betidaiñokoa da. Baiña Bere zerguna dan irozokia betidanikoa ta betidaiñokoa dan ezkerro, egitan eta yardutez betidaniko ta betidaiñoko IN-ens da. Beraz, berebat da Nunc-In-stans, Orain-bere-baitan-dagoena, ta Nunc-In-Ens, «Orain-bere-baitan-dana». Ta betidaniko ta betidaiñoko ba'da Bere baitan, Nunc-Ens da, «Orain-danik-dana». Ez, oratio, «Oraindanik-dana».

Sorkaria ere In-stans da, baiñan izateko sorkuaren beafa duen ezkerro, sorkuaren mendeko dago egote-aldi bakoitzean. Ondorio danez, sorburuaren mendean du beti oraiñ-aldi bakoitzean bere izatea. Bere Nunc-In-Ens «Oraiñ-aldiz-danik-dana» baño obe da «Nunc-In-Iens» edo «Orainirtetzen-ari-dana». Beraz, «oraindanik-dana». Ez, oratio, «Orain-danik-dana».

CON-stans da Jainkoa. Atalbako Osoko bat da. Osokoa, befiz, osorik eta osobeterik da izate, Jainkoa berez eta berariz danik dalako. Ez da zatika ta mailaka ta aldiz aldi edo oraiñ-aldiz oraiñ-aldi irixten izatera. Bakuna da izatea ta bakana. Dena-den-dena batera da, ta berebatez da. Ez da beste izaki osoagorik. Jainkoak, ba, betibateko CON-stantia Bere Osokoan duen ezkerro, betibateko ta berebateko -Stantia- du. Batbera ta berdiña zayo Jainkoari betidaniko ta betidaiñoko Osokoa danez, CON-stans eta Nunc-stans. Baiña Nunc-stans ba'da, Nunc-Ens zayo oiñondo ta oiñafi. -Stantia-, ba, -Entia'ren- irautea da. Jainkoa Orain-Osoko-batean-egotea, alegia, Jainkoa «Oraiñ-batean-izatea» da. Beraz, Orain-danik-dana da. Baiña Nunc-stantia izatearen irautea dan ezkerro, jatoriz eta oiñariz Nunc-Entia da. Beraz, Nunc-stans zera da: Nunc-Ens, «Orain-danik-dana» egitan eta yardutez.

PER-stans da Jainkoa. Betebetea da izatez Jainkoaren zerguna. Jatorizko izatea da. Sorkurik ez duen ezkerro, ta berez eta berariz dan ezkerro, aldirik ez du. Aldigabea da Bere izatea. Aldiz aldian ez dalako, ez da oraiñ-aldiz oraiñ-aldi. Aldian zear ez dalako, Orain-aldian zear ez da. Beraz eta berariz izate utsa dalako, Orain-bateko-irautea da. Ez du Bere Orain-batean tarterik tartean zear irauteko; ez du tarteko utsaldirik, utsal-dian zear irauteko; ez du irautearen etenaldirik, etenaldian zear irauteko. Beraz ez dago Bere izatean-zear, baiña Bere zerguna zearo-izatea danez, «zearo» dago Bere izatean. Orain-batean-zearo-dagoenez, PER-stans betibateko Nunc-stans da. Betibateko Per-stantia zearo danez, betidaniko ta betidaiñokoa ba'da, berez eta berariz berebateko Nunc-stantia da. Beraz, Nunc-stans lenago Nunc-Ens da, «Orain-danik-dana». Ez, oratio, «Oraindanik-dana».

SUPER-stans da Jainkoa. Gorago esan bezela, ez dago gaiñean, edonun dago-eta. Jainkoa ez da sorkarien sorkaria, baiñan izakarien izakaria da. Sorkurik ez duenez, ez du iñundiko isegiterik, ez da beste iñoren mendeko edo beste ezeren mendeko. Sorkari guzien sorkua, baiña, sorkari guzien kakoa da, ta sorkari guziak, kakoak yareginda, ezerezean erortzen ba'dire ere, Jainkorik ezin da erori. Sorkari guziak kakoaren mendeko direnez, ezerez biurtzen ba'dire, Jainkorik ezin da ezerez biurtu, berezko ta berarizko izatea da-eta. Beti geratzen da, beste sorkari guziak beera beafez ezerezean erortzen ba'dire ere, Super-stes edo Super-sus. Bera bakafik ge-

ratzen da «gaiñezka». Betibateko ta gaiñezkako dan Super-stans, beñiz, betibateko ta gaiñezkako dan Super-Ens da jatoñiz eta oiñañiz. Super-stes edo Super-Ens gaiñezka geratzen da betibateko izatean, ta betidanik betidaiño-ko izatea da. Betidanik, beñiz, betidaiño-koa ba'da izatea, Super-Ens egitan eta yardutez Nunc-Ens da, ots, «Orain-danik-dana», Ez, ofatio, «Orain-danik-dana».

SUB-stans da Jainkoa. Ez da, ofatio, azpian dagoenik ezer Jainkoagan edo Jainko baitan. Berez eta berariz dan ezkerro, Bere zergunarekiko edo-zer izate da. Izate osobetea da, ta dandanean Izatondoa da. Izatondoa, beñiz, ez litzake izanen Iraute utsa ez ba'ledi. Irautondoa da Bere dandanean. Jainkoak ez du aldiz aldi irauten, ez oraiñ-aldiz oraiñ-aldi, sorkariak bezela. Sorkariak, ba, bere izatean-zear irauten duen ezkerro, izatondoa da. Baiña bere izateak sorkua duen ezkerro, sorkuaren mendean dago aldiz aldi ta oraiñ-aldiz oraiñ-aldi. Jainkoak, ordea, berez eta berariz izate utsa danez, sorbururik (principio) ba-duen añen, ez du iñolazko sorkurik. Yare dago zearo Bere izatean. Beraz, Sub-stans izan, Sub-sistens izan, Jainkoa dan Izatondoa betidaniko ta betidaiño-ko Irautondoa dalako da. Izatearena da irautondoa eta, beraz, Sub-stans jatoñiz eta sorburuz Sub-Ens da. Substantia baldin ba'da, jatoñiz eta sorburuz Sub-entia dalako da. Sub-Ens edo Azpian-dana, betidanik eta betidaiño danez, Nunc-Ens da: Orain-danik-dana. Ez, ofatio, Oraindanik-dana.

CIRCUM-stans da Jainkoa. Ez da, ofatio, ingurunean-dagoenik ezer Jainkoa. Circum-stans ingurukoan-mugaturik dagoena da, ta ondorengoz ertsita dagoena da. Ofezkerroz, ba, ingurunea muga da, baiña Jainkoa ez da ingurunea, ez muga. Ingurunea mugautea da, baiña Jainkoak ez du mugaturik. Izatearen ertsia ta espafua da ingurunea, baiña Jainkoak ez du izate ertsirik. Sorkariaren ingurunea (Um-welt) Munduangoa deritza, ta Munduangoan kokaturik dago. Sorkariaren ingurunea Aldiangoa deritza, ta aldiangoan kokaturik dago. Beraz, Or eta Or, biritan dago sorkaria, bi kategorietan dago aldean eta aldian, Or-dago-Or sorkaria. Baiña Jainkoak ez du ingurunerik, sorkaria ez da-eta. Sorkaria dan «DA-sein» zera da «sein-DA», ta «DA» birítango Alde ta Aldi da. Biko mugautea da. Baiña Jainkoak ez du mugarik, berez eta berariz izate utsa da-eta. Izate utsa dandanean dago, tokian eta aldian baiño Aruntzagoan dago. Biko Meta-muga da, biko Meta-kategorian dago. «(Der?) (Das?) Um-greifende» deritza, Jainkoa beste edozer izaki, edozein tokiko ta aldiko izaki baiño Aruntzagoa da. Aruntzagoa da Jainkoaren CIRCUM-stantia. Emengoen mugaz-gaindikoa da, emengoen mugaz-bestaldekoa da, izakari ta sorkari guzien Mugaz-Aruntzagoa da. Bere Circum-stans, betidaniko izatea dan ezkerro Aruntzagotasuna, egitan betidaniko EX-stans da. Baiña Bere EX-stans betidaniko ta betidaiño-koa dan ezkerro, egitan eta yardutez Nunc-stans da. Baiñan Oraiñean irauteko oiñañiz eta sorburuz Nunc-Ens da: «Orain-danik-dana».

